

# BESTELAKO XEDAPENAK

## TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA

### 1478

*AGINDUA, 2023ko martxoaren 21ekoa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, zeinaren bidez oinarriak ezarri eta deialdi publikoa egiten baita Euskal Autonomia Erkidegoko merkataritza modernizatzeko laguntza-programaren laguntzetarako (Funts Teknologikoa), Susepertz, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan (Europar Batasunak finantzatua – Next GenerationEU).*

#### I

Merkataritza-jarduera gure gizartearen eta hirietako bizimoldearen oinarritzko elementu bat da, eta tokiko hazkunde ekonomikoan eta enpleguaren sorkuntzan laguntzen du. Gaur egungo datuak kontuan hartuta, barne-merkataritzaren sektoreak du pisurik handiena EAEko jarduera ekonomikoan; izan ere, enplegu guztiaren % 15,6 da, eta EAEko BPGd-ari 7.373 milioi euroko ekarpena egiten dio, hau da, BPGd-aren ia % 11. Beraz, oinarritzko sektorea da EAEko ekonomiarentzat.

EAEko 2021eko Jarduera Ekonomikoen azken Direktorioaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan 36.679 merkataritza-establezimendu daude; horietatik, 10.349 handizkako saltokiak dira, 3.227 automobilgintzaren sektorekoak, eta 22.103, txikizkako saltokiak, hots, guztizkoaren % 63. Une honetan 135.384 lanpostu dituzte establezimendu horiek: 12.789 automobilen salmenta eta konponketan (% 9,45); 39.849 handizkako merkataritzan (% 29,43), eta 82.746 txikizkako merkataritzan (merkataritza-sektore osoaren % 61,12).

Mikroenpresen eta enpresa txikien sarean eta autonomoen kolektibo handian oinarritzen da enpresa-egitura hori: merkataritza-enpresen % 72,23 inguru bi langile baino gutxiagokoak dira, eta % 90,89 inguru, berriz, bost langile baino gutxiagoko plantillak dituztenak, eta autonomoen kolektiboa txikizkako merkataritza-sektorean sortutako enpleguaren % 34 da.

Merkataritza-sektoreak ekonomiari ekarpen nabarmena egiten dion arren, sektorean alde handiak daude teknologia berrien erabileran, egungo kontsumo-ohituretara egokitzeari edo bezeroekin elkarrengaitzeko moduari dagokienez, bai azpisektoreen artean bai azpisektore bereko enpresen artean.

Merkataritza-sektoreak egiturazko aldaketa sakonei egin behar die aurre, eta ez EAEn baka-rrik. Izan ere, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen erosketa-ohitura berrietara egokitu behar da. Sektoreak irmo eta lehenbailehen egin behar dio aurre eraldaketa digital sakonari, lehiakortasunari bultzada emanez, kudeaketa-eredu berriak abian jarriz, talentua eta berrikuntza komertziala txertatuz eta gure gizartearen etorkizuneko eskariei erantzungo dieten jasangarritasun-estrategiak hedatuz. Merkataritza hiri-diseinuan integratzea, mugikortasunarekin, jasangarritasunarekin, aisialdiarekin eta gure herri eta hirien segurtasunarekin integratuta, funtsezko faktorea da gure etorkizunerako eta gure lurraldearen kohesio sozialerako..

Merkataritzaren atomizazioak, bereziki txikizkako saltokienak, egora ahulagoan uzten ditu haiek krisien aurrean, dela COVID-19aren ondoriozkoa, dela Ukrainako gerrak eragindako egungo energia- eta hornidura-krisia, eta, horren ondorioz, lehiakortasuna handitzeko eta digitalizazioa bizkortzeko helburua duten proiektuak bultzatu behar ditugu, denboran iraungo duen, kontsumitzaileen konfiantza berreskuratzeko duen eta sektorea banaketa-kanal berrietara irekitzeko erraztasunak jarriko dituen eredu erresiliente baterantz doazenak. Horretarako, aldaketak egin behar dira, salmenta-eremu tradizionaletik kanpoko lurraldeetara iristeko eta jasangarriago izateko.

## II

COVID-19ak eragindako nazioarteko pandemiak eta gaixotasunaren hedapen azkarrak krisi sanitario larri batera eraman gaituzte, eta horrek eragin sozial eta ekonomiko handia izan du, bereziki merkataritza-sektorean. Hain zuzen ere, hura izan da COVID-19aren kontrol-neurriek modu larrienean eragin dieten sektoreetako bat.

2020ko uztailaren 21eko Europako Kontseiluak, une historiko honetan Europar Batasunean konbergentzia, erresilientzia eta eraldaketa bultzatuko duten ahalegin berezi baten eta planteamendu berritzaile baten beharraz jabetuta, erabaki garrantzitsuak hartu zituen 2021-2027ko Urte Anitzeko Finantza Esparruari eta Europar Batasunaren Suspertze Tresna (Next Generation EU) deritzon irismen handiko neurri sortari dagokienez, 750.000 milioi euro eskatzen zituztenak.

Tresna hori Kontseiluaren 2020/2094 (EB) Erregelamenduaren bidez onartu zen (2020ko abenduaren 14koa, Europar Batasunaren Suspertze Tresna ezartzen duena, COVID-19aren krisiaren ondorengo susperraldian laguntzeko). Era berean, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 (EB) Erregelamendua onartu zen, 2021eko otsailaren 12koa, trantsizio ekologikoari, eraldaketa digitalari eta gizarte- eta lurralde-kohesioari buruzkoa, suspertze- eta erresilientzia-mekanismoa ezartzen duena. Mekanismo hori da Europar Batasunaren suspertzeko ezohiko neurrien ardatz nagusia, eta aukera emango dio Espainiari inoiz ez bezalako inbertsio-bolumen bat mobilizatzeko, autonomia-erkidegoek kudeatuko dutena.

Horrela definitutako finantzaketak estatu kideei lagundu behar die COVID-19ak eragindako pandemiaren ondorio ekonomiko eta sozialei aurre egiten, eta bermatu behar du, era berean, haien ekonomiek trantsizio ekologiko eta digitalei ekingo dietela jasangarriagoak eta erresilienteagoak izateko, susperraldia azkartuko duten eta epe luzeaz hazkundera indartuko duten inbertsioak eginez, barne-merkatuak behar bezala funtziona dezan erantzuteko gaitasuna handitu dezaketen eta beste erronka batzuei aurre egin diezaieketen enpresa txiki eta ertain (ETE) sendoekin.

## III

Aurrekoa oinarri hartuta, Espainiako Gobernuak «España Puede» Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana prestatu du. Suspertze Plana 2021eko uztailaren 13an onartu zuen Kontseiluak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 18. eta 20. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planak eskatzen du eragile sozioekonomiko guztiek, gobernu-maila guztiek eta administrazio publikoaren baliabide guztiek parte hartzea. Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana osatzen duten proiektuek aukera emango dute egiturazko erreformak egiteko datozen urteetan, arau-aldaketan eta inbertsioen bidez, eta, beraz, aukera emango dute ekoizpen-eredua aldatzeko, COVID-19ak sorrarazitako pandemiaren ondoren ekonomia suspertu dadin; aukera emango dute, gainera, egitura erresilienteago eta inklusiboago baterako transformazioa egiteko. Garrantzi berezia du horrek guztiak onura publiko, sozial eta ekonomikorako.

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko laguntza-jarduera gehienak epe laburrean egingo dira, 2021etik 2023ra, pandemiak eragindako egoera kritikoari aurre egiteko premiagatik, eta, gainera, aldaketa horiek egiteko abagune estrategikoa delako.

Europako funtsekin finantzatu daitezkeen proiektuen diseinua eta exekuzioa errazteko eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana ezartzen laguntzeko, Espainiako Gobernuak abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretua eman zuen, zeinaren bidez presako neurriak onartu baitziren

Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko; halaber, HFP/1030/2021 Agindua ere eman zuen, irailaren 29koa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema eratzen zuena, eta HFP/1031/2021 Agindua, irailaren 29koa, estatuko, autonomia-erkidegoetako eta tokiko sektore publikoko erakundeek informazioa emateko prozedura eta formatua ezartzen dituen, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren osagaietako neurrien mugarren eta helburuen betetze-mailaren eta neurrien aurrekontu- eta kontabilitate-betearazpenaren jarraipena egiteko.

Plana hamar trakzio-politikatan edo palankatan banatuta dago. Politika horiek zuzeneko eragina izango dute ehun ekonomiko eta soziala eraldatzeko gaitasun handiena duten ekoizpen-sektoreetan, eta 30 osagai biltzen dituzte, hainbat ministerio-sailek beren eskumenak betetz esku hartzen duten jarduketa-ardatzen arabera.

Hamar trakzio-politikatik, bosgarrena, hau da, «Industria-sarearen eta ETE-en modernizazioa eta digitalizazioa, turismoa suspertzea eta Espainia nazio ekintzaile izatera bultzatzea», industria- eta ETE-en lehiakortasunean oinarritzen da funtsean.

Herrialdea modernizatzeko inbertsioen eta erreformen proiektu koherenteak artikulatzen dituzten 30 osagaien artean, 13. osagaiak, «ETEak bultzatzea» deiturikoak, hainbat kontutara bideratutako erreformak eta inbertsioak biltzen ditu: ekintzailatza, enpresa-hazkundera eta merkataritza-sektorea bultzatzea, trantsizio digitala erraztea eta enpresa-berrikuntza bultzatzea, nazioartekotzea sustatzea eta emisioak murrizten laguntzea, baliabideak efizienteki erabiltzea eta klima-erresilientzia indartzea.

Merkataritza-sektoreari dagokionez, helburu horiek eta haiek lortzeko beharrezkoak diren jarduerak C13.14 osagaiaren barruan sartzen dira («Merkataritzari laguntzea»), hor sartzen baita, 1.2 jarduketa gisa, «Merkataritza modernizatzeko programa: funts teknologikoa», merkataritza txiki eta ertainei banaka edo elkarrekin bidez laguntzeko ildoak, sektorean teknologia berriak txertatzeko proiektuak finantzatzea helburu duena, tokiko merkataritzak kontsumo-ohitura berriei erantzun diezaien eta teknologia berri horiek establezimenduen beraren eraldaketa digitalean, jasangarritasunean eta negozio-ereduan eragina izan dezaten.

Horrela, eta Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoan eta Suspertze Planean ezarritako helburuekin bat etorriz, laguntza-lerro horren helburu espezifikoak da merkataritza-sektorea eguneratzeko eta modernizatzeko jarduketak garatzen dituzten proiektuak diruz laguntzea, sektorea kontsumo-ohitura berrietara egokitzeko, eta teknologia berrien inplementazioa sustatzeko, bai eta merkataritza-establezimenduetan jasangarritasuna, efizientzia, hondakinen birziklapena eta berrerabilera hobetzen lagunduko duten konponbideen inplementazioa ere.

#### IV

Merkataritzako Estatu Idazkaritzaren 2022ko maiatzaren 19ko Ebazpenak, zeinak Merkataritza Arloko Biltzarrak 2022ko maiatzaren 9ko Arloko Biltzarraren osoko bilkuran hartutako Erabakia argitaratzen baitu, Merkataritza Modernizatzeko Programara (Funts Teknologikoa) bideratutako kreditua banatzeko irizpideak ezarri zituen, bai eta kreditu hori autonomia-erkidegoei eta Ceuta eta Melilla hiri autonomoei nola banatu ere. Guztira, 100 milioi euro 2022ko eta 2023ko ekitaldietarako, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren 13. osagaiaren 14.1.2 inbertsioaren esparruan.

Erabaki horretan, autonomia-erkidegoek parte hartzeko baldintzak, aplikazio-eremuak, proposamenak aurkezteko prozedura eta horiek onartzeko, gauzatzeko eta justifikatzeko arauak ezartzen dira.

Erabakiak ezartzen duen bezala, laguntzen helburua teknologia berriak sartzea da, tokiko merkataritzako ETE-ek aukera izan dezaten, banaka edo sektoreko elkarteen bidez, kontsumo-ohitura berriei erantzuteko, eta establezimenduaren beraren eraldaketa digitalean, jasangarritasunean eta negozio-ereduan eragina izan dezaten.

Proiektuek, digitalizazioaren bidez, azpiegitura digitalen eta datuen eta berrikuntza digitaleko elkarteen eta zentroen garapena sustatuko dute, baita soluzio digital irekiak abian jartzea ere. Horretan, aukera-berdintasuna bermatuko zaie eskualde bakoitzeko jarduera ekonomikoan zuzeneko eragina duten autonomia-erkidego bakoitzeko hartzaile potentzialei.

Finantzaketa-lerro horren onuradunak autonomia-erkidegoak eta hiri autonomoak izango dira, baina horien azken hartzaileak merkataritza-sektoreko irabazi-asmorik gabeko elkarreak eta merkataritza-sektoreko enpresak izango dira, baldin eta ETEtzat jotzen badira, Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamenduan ezarritako definizioaren arabera, eta zehaztutako EJSNen barruan badaude (erregelamendu horren bidez, zenbait laguntza-kategoria barne-merkatuarekin bateragarritzat jotzen dira, Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatuz –kategorien arabera salbuespenen erregelamendu orokorra–).

Euskal Autonomia Erkidegoan, Merkataritza Modernizatzeko Programa (Merkataritzako Funtz Teknologikoa) betetzeko esleitutako zenbatekoa 2.075.884 euro da (bi milioi, hirurogeita hamabost mila, zortziehun eta laurogeita lau euro), 2022ko eta 2023ko aurrekontu-ekitaldietako bakoitzean emandako zenbatekoak autonomia-erkidegoen arabera nola banatu finkatzen duen ebazpenaren 1. taulan ezarritakoaren arabera:

Autonomia-erkidegoak	Banaketa-ehunekoa	2022ko eta 2023ko aurrekontu-ekitaldi bakoitzerako esleitutako zenbatekoa (eurotan)
Euskal Autonomia Erkidegoa	4,1517	2.075.884

Autonomia-erkidegoen eta hiri autonomoen ardura izango da, zuzeneko onuradun gisa eta «erakunde betearazle» gisa, dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak prestatzea, egoki irizitako irizpide, betekizun eta betebeharren arabera, betiere Merkataritza Arloko Biltzarraren Erabakian xedatutakora egokitzen badira.

## V

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuak, abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren bidez onartuak, Euskal Autonomia Erkidegoari eskumen eksklusiboak ematen dizkio barne-merkataritzan, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko jarduera ekonomikoa sustatzeko, garatzeko eta planifikatzeko ere, ekonomiaren antolamendu orokorraren arabera.

Merkataritza Jarduerari buruzko maiatzaren 27ko 7/1994 Legeak eta ondorengo aldaketek Euskal Autonomia Erkidegoko merkataritza-jarduera arautu eta merkataritza-egituraren antolamendua eta hobekuntza ezarri zuten.

Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 13/2021 Dekretuaren arabera, Merkataritza Zuzendaritzari dagokio autonomia-erkidegoko merkataritza-banaketako egiturak eta prozesuak hobetzea eta modernizatzea.

Horri erantzuteko, agindu bat prestatu da, 2023ko laguntzen deialdiaren oinarri arautzaileak biltzen dituen, merkataritza modernizatzeko programa finantzatzeko inbertsio-proiektuak finantzatzeko dituzten dirulaguntzak emateko lehiarik gabeko konkurrentziaren erregimenean: Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren kargurako Funtz Teknologikoa, honako alderdi hauei buruzkoa: helburu orokorrak, finantzatu daitezkeen proiektu motak, onuradunak eta finantzaketaren ezaugarriak eta mugak.

Europako Next Generation EU funtsen esparruan laguntzak emateko premia larria kontuan hartuta, oinarri arautzaile horiek norgehiagokarik gabeko dirulaguntza gisa izapidetu ahal izango dira, abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuaren 62. artikuluan ezartzen den bezala, zeinaren bidez presako neurriak onartzen baitira Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikartzeko. Haren bidez, proiektuak beste proposamen batzuekin konparaziozko baloraziorik egin gabe finantzatzea onartzen da, bai eta laguntzak emateko ebazpenak ematea ere, eskabideak aurkezteko hurrenkeraren arabera, diruz lagundu daitezkeen egoera edo proiektua eta eskatutako gainerako baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren, deialdian esleitutako aurrekontu-kreditua amaitu arte.

Bestalde, errespetatu beharra dago ingurumenari kalte nabarmenik ez eragiteko printzipioa (ingelesezko sigletan, DNSH printzipioa, «*Do No Significant Harm*»), proiektuak diseinatzeko eta gauzatzeko fase guztietan, eta agindu hau betez gauzatzen den jarduketa bakoitzean, honako hauetan xedatutakoari jarraituz: Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana; Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamendua eta hura garatzeko araudia; eta, bereziki, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoari buruzko Erregelamenduaren arabera «kalte nabarmenik ez eragiteko» printzipioaren aplikazioari buruzko Batzordearen gida teknikoaren komunikazioa, bai eta Espainiaren Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren ebaluazioa onartzeari buruzko Kontseiluaren betearazpen-erabakia ere. Horren barruan sartzen da 13. osagaien (4.1.2 inbertsioa) aurreikusitako baldintza espezifikoak betetzea, DNSH printzipioari dagokionez, eta bereziki Planaren Osagaiaren dokumentuaren 3., 6., 7. eta 8. apartatuetan jasotakoak. Nolanahi ere, ingurumen-ebaluazioko prozedurak bete behar dira, aplikatzekoak direnean, indarrean dagoen legediarekin bat etorritik, baita ingurumen-legedia dela bide aplikatzekoak izan daitezkeen bestelako ondorioen beste ebaluazio batzuk ere.

Era berean, Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluaren 2022ko martxoaren 29ko Erabakiak, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren apirilaren 6ko 40/2022 Ebazpenaren bidez argitaratuak, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana gauzatzeko eskatzen diren iruzurraren aurkako baldintzak, interes-gatazkaren, finantzaketa bikoitzaren eta estatu-laguntzen arloko baldintzak eta ingurumen-kalte handirik ez egitekoak betetzeko neurrien plana onartzen du.

Aginduaren esparruan emandako laguntzak *de minimis* araudiak estalitako estatu-laguntzak dira, eta, beraz, Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1407/2013 (EB) Erregelamendua aplikatuko da, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua *de minimis* laguntzei aplikatzeari buruzkoa. Hala, onuradunek ezin izango dute araubide horri atxikitako laguntzarik jaso, baldin eta hiru zerga-ekitalditan metatutako zenbatekoak 1407/2013 Erregelamenduaren 3.2 artikuluko muga gainditzen badu. Artikulu horrek ezartzen duenez, estatu kide batek enpresa bakar bati emandako *de minimis* laguntzen guztizko zenbatekoa ez da 200.000 eurotik gorakoa izango hiru zerga-ekitaldiko edozein alditan.

Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren 2023rako Dirulaguntzen Plan Estrategikoan jasota dago laguntza hori; plana Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuaren 2023ko otsailaren 22ko Aginduaren bidez onartu zen.

Azaldutakoan oinarrituta, eta Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 13/2021 Dekretuaren 3. artikulua emandako eskumenen arabera, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren dirulaguntza eta laguntzei aplikatzeko gainerako xedapenetan ezarritakoarekin bat etorritik, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

##### 1. artikulua.– Xedea eta helburua.

1.– Agindu honen xedea da merkataritza-sektorearen eraldaketa digital eta jasangarriaren bidez lehiakortasuna eta modernizazioa sustatu eta bultzatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak onartzea Funts Teknologikoa Merkataritza Modernizatzeko Programaren esparruan, bai eta 2023ko deialdia egitea ere.

2.– Laguntza horien helburua da eduki teknologiko, berritzaile eta jasangarria duten proiektuen garapena finantzatzea. Plan eta proiektu horiek merkataritzako mikroenpresek eta enpresa txiki eta ertainek aurkeztuko dituzte, banaka edo elkarleen bidez. Plan eta proiektuok merkataritza-jardueraren kudeaketan eta negozio-ereduan eragingo dute, enpresak kontsumo-ohitura berrietara, salmenta-modalitateetara, posizionamenduetara eta banaketara egokitzen direla bermatuz, eta lehiakorrago eta erresilienteago bihurtuz. Aurkez daitezkeen proiektuek ingurumen-helburuei «kalte nabarmenik ez eragiteko» printzipioa bete beharko dute, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoari buruzko Erregelamenduaren arabera.

##### 3.– Bi laguntza-lerro ezarri dira, entitate onuradunen tipologiaren arabera:

a) Merkataritza-sektoreko mikroenpresei eta enpresa txiki eta ertainei (aurrerantzean, ETEak) zuzendutako lerroa.

b) Irabazi-asmorik gabeko elkarteei eta hainbat merkataritza elkarte osatzen dituzten elkarte-entitatei edo legez eratutako federazio eta konfederazioei (aurrerantzean, elkarteak) zuzendutako lerroa.

4.– Oinarri hauen arabera emandako dirulaguntzak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 (EB) Erregelamenduak, 2021eko otsailaren 12koak, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duenak, ezarritako Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren bidez finantzatzeko dira. Europako funtsekin finantza daitezkeen dirulaguntza horiek izapidetzeari eta emateari abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuan aurreikusitakoa aplikatuko zaie (Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikartzeko presako neurriak onartzen dituena), aplikatzeko den gainerako araudiari kalterik egin gabe.

5.– Agindu honen arabera finantzatzen diren laguntzak Espainiako Gobernuaren Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren 13. osagaiaren barruan sartzen dira («ETEak bultzatzea»), 4. inbertsioan («Saltokiei laguntzea»), 1.2 jardueran («Merkataritza modernizatzeko programa: Funts Teknologikoa»), eta 210. helburua betetzen lagunduko dute: Funts Teknologikoaren dirulaguntzak jaso dituzten ETEak edo enpresa-elkarteak, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa erregulatu duen araudiaren arabera, eta Europako eta estatuko Suspertze Planari jarraituz.

Helburua honela definitzen da: «Gutxienez 200 ETEk edo merkataritza-sektoreko enpresa elkartek Funts Teknologikoaren dirulaguntzak jaso beharko dituzte, kalte nabarmenik ez eragitearen printzipioaren aplikazioari buruzko gida teknikoan xedatutakoaren arabera (DO C 58, 2021-02-18koa, 1. or.), bazterketa-zerrenda bat erabiliz eta EBko eta estatuko ingurumen-legeria betetzeko betekizunaren bidez».

Merkataritzako Estatu Idazkaritzaren 2022ko maiatzaren 19ko Ebazpenaren bidez, Merkataritza Arloko Biltzarrak 2022ko maiatzaren 9ko Arloko Biltzarraren osoko bilkuran hartutako Erabakia argitaratu zen. Eta erabaki horren bidez, autonomia-erkidegoei eta Ceuta eta Melilla hiriei aipatu 210. helburu hori betetzeko zuzeneko laguntzak ematea onartu zen. Hala, Merkataritzako Estatu Idazkaritzaren ebazpen horren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak gutxienez 8 ETE edo enpresa elkarte lagundu beharko ditu diruz.

## 2. artikulua.– Araudi aplikagarria.

1.– Oinarri arautzaileotan ezartzen diren dirulaguntzek, haietan xedatutakoaz gain, kasuan kasuko deialdia eta emakida-ebazpena eta hauetan xedatutakoa izango dituzte arau:

a) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamendua, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duena.

b) 36/2020 Errege Lege Dekretua, abenduaren 30ekoa, zeinaren bidez presako neurriak onesten baitira Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko.

c) HFP/1030/2021 Agindua, irailaren 29koa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema eratzen duena.

d) HFP/1031/2021 Agindua, irailaren 29koa, Estatuko, autonomia-erkidegoetako eta tokiko sektore publikoko entitateek informazioa emateko prozedura eta formatua ezartzen dituen Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren osagaietako neurrien mugarrak eta helburuak betetzen ote diren kontrolatzeko eta neurrien aurrekontu- eta kontabilitate-betearazpenaren jarraipena egiteko.

e) Diruz lagundutako jarduerak egikaritzeko, aplikatu beharreko ingurumen-araudia bete beharko da (DNSH), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2020ko ekainaren 18ko 2020/852 (EB) Erregelamenduan ezarritakoaren arabera.

f) Euskal Autonomia Erkidegoko 2023. urteko Aurrekontu Orokorra onartzen dituen abenduaren 23ko 15/2022 Legearen V. kapitulua.

g) 1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testuategia onartzen duena.

h) 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.

i) 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren Erregelamendua onartzen duena.

j) 698/1991 Dekretua, abenduaren 17koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargura ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duena eta horien kudeaketan parte hartzen duten entitate laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen dituena.

k) HFP/55/2023 Agindua, urtarrilaren 24koa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana betearazten duten prozeduretako interes-gatazken arriskuaren analisi sistematikoari buruzkoa.

2.– Hauek ere aplikatuko dira:

a) Gobernu Kontseiluaren Erabakia, 2022ko otsailaren 8koa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planari lotutako jardueren eta proiektuen aurrekontu- eta kontabilitate-betearazpenari, kudeaketari eta jarraipenari buruzkoa, zeina argitara eman baitzen Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren martxoaren 1eko 30/2022 Ebazpenaren bidez (2022ko martxoaren 4ko EHAA, 46. zk.).

b) Gobernu Kontseiluaren 2022ko martxoaren 29ko Erabakia, «Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko iruzurraren aurkako borrokari, interes-gatazkei, finantzaketa bikoitzari eta estatu-laguntzei buruzko betekizunak eta ingurumenari kalte nabarmenik ez egitekoak betetzeko neurrien Plana» onartzen duena, zeina argitara eman baitzen Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren apirilaren 6ko 40/2022 Ebazpenaren bidez (2022ko apirilaren 13ko EHAA, 74. zk.).

3.– Era berean, entitate onuradunek nahitaez bete beharko dituzte laguntza ematen duen administrazioak, estatuko eta Europako gainerako agintari eskudunek xede horretarako ezarritako arauak, bai eta laguntza hauen onuradun izateagatik ezarritako betebeharrak ere.

3. artikulua.– Laguntzen finantzaketa.

1.– Deialdi honetara 2.075.884 euro bideratuko dira, guztira, 2022ko maiatzaren 19ko Ebazpenaren bidez argitaratutako Merkataritza Arloko Biltzarraren Erabakiari jarraituz, honela banakatuta:

a) Merkataritza-sektoreko ETE-entzako laguntza-lerroa: 1.660.707,20 euro

b) Elkarreentzako laguntza-lerroa: 415.176,80 euro.

2.– Ematen den laguntza Euskal Autonomia Erkidegoaren ekitaldi bakoitzerako Aurrekontu Orokorrei egotziko zaie, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoetik eratorrita.

3.– Deialdi hau Europar Batasunaren Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoak finantzatzen du. Mekanismo hori Kontseiluaren 2020/2094 (EB) Erregelamenduak, 2020ko abenduaren 14koak, ezartzen du, zeinaren bidez COVID-19aren krisiaren ondorengo susperraldian laguntzeko Europar Batasunaren Suspertze Tresna bat ezartzen baita. Horrez gain, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren arabera arautzen da.

Abenduaren 30eko 11/2020 Legearen 7. artikuluan eta abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuaren 37. artikuluan ezarritakoaren arabera, laguntza horiei dagokien finantzaketa legez bideratuta dago NextGenerationEU Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren –Europar Batasunak finantzatua– barruan sartzen diren proiektuak edo ekintza-ildoak finantzatzera, 13. osagaiaren I4.1.2 inbertsioaren kargura.

4.– Artikulu honetan ezarritako aurrekontu-zuzkidura agortzen bada, utzi egingo zaio laguntza berriak emateari, eta ebazteke dauden eskabideak ezetsi egingo dira, 19.3 artikuluaaren arabera.

5.– Aurkeztutako eskabideak ebatzi ondoren ETE-en lerrorako edo elkarten lerrorako aurreikusitako baliabide ekonomikoak agortu ez badira, soberako saldoa, beharrezkoa izanez gero, beste lerroaren gabezia finantzatzeko erabili ahal izango da.

4. artikulua.– Laguntzen bateragarritasuna.

1.– Oinarri hauetan araututako dirulaguntzak bateragarriak izango dira edozein administrazioak edo entitate publiko edo pribatuk xede berarekin ematen dituzten beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko



otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 9. artikulua arabera, Suspertze eta Erresiliencia Mekanismoak finantzatutako inbertsio-proiektuek Batasunaren beste programa eta tresna batzuetatik jaso dezakete laguntza, baldin eta laguntza horrek ez badu estaltzen programa honen dirulaguntzak dagoeneko finantzatu zuen kostu bera.

Hala ere, dirulaguntzen zenbatekoak, bakarka hartuta edo helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera, ezingo du inola ere gaintu diruz lagundutako proiektuaren kostua, hala adierazita baitago Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 19.3 artikuluan. Kasu horretan, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak emandako laguntzari geldikina kenduko zaio.

2.– Administrazioei edo entitate batzuei xede eta helburu bererako eskatu dizkieten, edo haiengandik jaso dituzten, laguntzak aitortu beharko dituzte entitate onuradunek.

3.– Aginduaren esparruan emandako laguntzak *de minimis* araudiak estalitako estatu-laguntzak dira, eta, beraz, Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1407/2013 (EB) Erregelamendua aplikatuko da, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua *de minimis* laguntzei aplikatzeari buruzkoa. Hala, onuradunek ezin izango dute araubide horri atxikitako laguntzarik jaso, baldin eta hiru zerga-ekitalditan metatutako zenbatekoak 1407/2013 Erregelamenduaren 3.2 artikuluko muga gaintzen badu. Artikulu horrek ezartzen duenez, estatu kide batek enpresa bakar bati emandako *de minimis* laguntzen guztizko zenbatekoa ez da 200.000 eurotik gorakoa izango hiru zerga-ekitaldiko edozein alditan.

5. artikulua.– Onuradunak.

1.– Honako hauek jaso ahal izango dituzte agindu honetan ezarritako laguntzak:

1.1.– Merkataritza-sektoreko mikroenpresei eta enpresa txiki eta ertainei zuzendutako laguntza-lerroan, honako baldintza hauek betetzen dituztenak:

a) Merkataritza-sektoreko enpresak, baldin eta ETEak badira, Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamenduan ezarritako definizioaren arabera. Erregelamendu horren bidez, zenbait laguntza-kategoria barne-merkatuarekin bateragarriak direla ezartzen da, Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatuta (Kategorien arabera salbuespenen erregelamendu orokorra) Honako kategoria hauek izango dira:

– Mikroenpresa: 10 langile baino gutxiago izanik urteko negozio-bolumenean edota urteko balantze orokorrean 2 milioi euroko zenbatekoa gaintzen ez duena.

– Enpresa txikia: 50 langile baino gutxiago izanik urteko negozio-bolumenean edota urteko balantze orokorrean 10 milioi euroko zenbatekoa gaintzen ez duena.

– Enpresa ertaina: 250 langile baino gutxiago izanik, urteko negozio-bolumenean 50 milioi euroko zenbatekoa edo urteko balantze orokorrean 43 milioi euroko zenbatekoa gaintzen ez duena.

Enpresa batek, kontuak ixteko egunean, urteko muga horiek modu batera edo bestera gaintu dituela egiaztatzen badu, egoera horrek enpresa ertain edo txikiaren edo mikroenpresaren izaera eskuratzea edo galtzea eragingo dio, baldin eta ondoz ondoko bi ekitalditan gertatzen bada hori.

b) ETEak Euskal Autonomia Erkidegoan izan beharko du sozietate- eta zerga-egoitza.

c) Negozioaren jardura nagusiak bat etorri beharko du 2009ko Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionalaren (EJSN-2009) 45., 46. edo 47. kodeetan jasotako jardueretako batekin, Merkataritzako Estatu Idazkaritzaren 2022ko maiatzaren 19ko Ebazpenean ezarritakoaren arabera,

zeinaren bidez argitara ematen baita Merkataritza Arloko Biltzarraren Erabakia. Sailkapen hori 2009ko Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionala (EJSN-2009) onartzen duen apirilaren 13ko 475/2007 Errege Dekretuaren bidez onartu zen. EJSN-n benetan alta emateko datak eskaera aurkezteko bera edo lehenagokoa izan beharko du.

d) Merkataritza-jarduerak eta halakotzat hartzen ez diren beste batzuk aldi berean egiten badira, proiektua diruz lagundu ahal izango da, baldin eta jarduera nagusia merkataritzakoa bada, fakturazio-ehunekoaren arabera.

a) eta d) apartatueta baldintzak egiaztatzeko, agindu honen I. eranskinean agertzen den erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du eskatzaileak.

Hala ere, organo kudeatzaileak beharrezkotzat jotzen duen informazio gehigarria eskatu ahal izango du egiaztapena egiteko.

1.2.– Elkarreentzako laguntza-lerroan, honako betekizun hauek betetzen dituztenak:

a) Estatuetako eta jarduketa-programetako helburuen artean jasota egotea merkataritza-sektorearen interesen defentsa eta merkataritza-jarduera dinamizatzeko eta sustatzeko jarduerak egitea.

b) Elkarreak Euskal Autonomia Erkidegoan izan beharko du sozietate- eta zerga-egoitza.

c) Oinarri arautzaile hauek onartzeko agindua argitaratu aurretik legez eratuta egotea.

d) 2009ko Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionalaren (EJSN-2009) 45., 46. edo 47. kodeetan jasotako jardueraren bat duten bazkideen % 40 taldekatzea gutxienez. Sailkapen hori 2009ko Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionala (EJSN-2009) onartzen duen apirilaren 13ko 475/2007 Errege Dekretuaren bidez onartu zen.

Betekizun hori betetzen dela egiaztatzeko, elkarreak erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko du, dekretu honen III. eranskinean agertzen den ereduaren arabera, edo, bestela, dago-kion Merkataritza, Industria eta Itsasketa Ganbera Ofizialaren ziurtagiria, Merkatarien Elkarrean Erroldan agertzen diren entitate eskatzailearen datuak jasotzen dituen, eta, gutxienez, eranskin horretan eskatzen den informazioa.

2.– Ezingo dira laguntzen onuradun izan armak ekoiztera, merkaturatzera edo finantzatzera dedikatzen direnak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Herrialde Pobretuekiko Justizia eta Elkartasun Gutunari buruzko abenduaren 28ko 14/2007 Legeak xedatutakoa betez.

6. artikulua.– Onuradunen betekizunak.

Aurreko artikuluan aurreikusitako baldintzez gain, onuradunek betekizun hauek bete beharko dituzte:

a) Deialdia egin duen erakundearen aurrean, bere gain hartuko ditu laguntzaren onuraduna izateari dagozkion eskubide eta betebeharrak guztiak, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen eta hura garatzeko uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Erregelamenduaren ondoriozkoak.

b) Onuradunen ekintzek oinarri arautzaile hauetan ezarritakoa bete beharko dute.

c) Ezingo dira laguntzen onuradun izan honako hauetan jasotako egoeraren batean dauden entitateak edo enpresak: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikulua 2. eta 3. apartatuak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50. artikuluko 5. eta 6. apartatuak.

Ondasun-erkidegoen edo sozietate zibilen kasuan, haietan parte hartzen duten pertsona fisiko edo juridiko pribatu guztiak joko dira onuraduntzat, eta guztiak bete beharko dituzte ezarritako eskakizunak eta baldintzak.

d) Ez hartzea krisian dagoen enpresatzat, 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamenduaren 2.18 artikuluan xedatutakoaren arabera.

e) Ez egotea berreskuratze-agindu baten menpe, Europako Batzordeak aurretiaz erabaki badu laguntza bat legez kanpokoa eta barne-merkatuarekin bateraezina dela.

f) Ez gainditzea de minimis laguntzen muga, agindu honen 4.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

g) Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13.3 bis artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, eta 30.000 eurotik gorako dirulaguntzetarako, eskatzaileak Merkataritza Eragiketetan Berankortasunaren Aurkako Neurriak Ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legearen aplikazio-eremuan sartutako subjektuak badira soilik, ezingo dira onuradun izan lege horretan aurreikusitako ordainketa-epeak betetzen dituztela egiaztatzen ez duten enpresak.

Kontabilitateko araudiaren arabera galdu-irabazien kontu laburtua aurkez dezaketen sozietateek egiaztatuko dute hori, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamenduaren 26. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, agindu honen I. eranskinean agertzen den adierazpenaren bidez.

Kontabilitateko araudiaren arabera galdu-irabazien kontu laburtua aurkeztu ezin duten sozietateek ordaintzeko legezko ordainketa-epeak betetzen dituztela egiaztatu behar dute, Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean inskribatutako auditore batek emandako ziurtagiriaren bidez. Ziurtagiri horrek kontuan hartuko du enpresa bezeroaren ordainketen benetako epea, enpresa hornitzaileak alde aurretik kobratzeko edozein finantzaketa alde batera utzita.

Apartatu honetan aipatzen diren baldintzak XIV. eranskinean jasota daude.

7. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

1.– Arau orokor gisa, SEMak egiturazko aldaketa dakarten, erresilientzia ekonomiko eta sozialean, epe luzeko lehiakortasunean, jasangarritasunean eta digitalizazioan eta enpleguan eragin iraunkorra duten eta behin eta berriro egiten ez diren gastuak baino ez ditu finantzatuko.

2.– Agindu honetan araututako laguntzek abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuaren 37. artikuluaaren arabera finantzatuko dituzte jarduketak, SEEPen arau-esparruaren arabera hautatzeko modukoak diren jarduketak finantzatzeko.

3.– Diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira laguntzaren xede den jarduerarekin zalan-tzarik gabe zerikusia duten, gauzatzeko beharrezkoak diren, proiektu onuradun bakoitzerako onartutako egikaritze-aldian egin diren eta justifikazio-aldia amaitu aurretik benetan ordainduta dauden horiek. Gastuek merkatuko prezioen arabekoak izan beharko dute.

4.– Mikroenpresentzako, enpresa txikientzako eta ertainentzako laguntza-lerroaren barruan, honako hauek lagunduko dira diruz:

a) Eraldaketa digitalera bideratutako gastuak: online merkataritza-estrategiaren eta komunikazio-estrategiaren, negozio-ereduaren eta erosketa-esperientziaren hainbat eremu hobetzeko teknologia berrien proiektuak izango dira:

1) Bezero-arreta, harekiko harremana eta haren gaineko ezagutza hobetzea, eta fidelizatzea, teknologia berriak eta analitika aurreratuko teknikak erabiliz.

2) Merkataritza-establezimenduen eraldaketa digitalean inbertitzea, salmenta-funtzionaltasunak txertatu, mantendu edo hobetzeko, negozio-ereduen omnikanalitatea sustatzen duten eta bezeroen ingurune digitaleko erosketa-esperientzia hobetzen duten kanal digitalen bidez.

3) Zibersegurtasuneko soluzioak.

4) Negozio baten barruan barne-komunikazioa hobetzeko plataformak, edo negozioen artean edo intereseko beste figura batzuen artean, elkarrekiko ekintzak abiarazteko, elkarren mesedetan eta lan egiteko modua hobetzeko, bai eta bezero-arreta hobetzeko eta kopurua handitzeko ere.

5) Produktuak estandarizatzea eta informazioa sortzea.

6) Aplikazio informatikoak garatzea, telefono mugikor adimendunetarako edo produktuak eta zerbitzuak sustatzeko balio duten bestelako gailu edo bitarteko digitaletarako.

b) Salmenta-puntua eraldatzeko gastuak: salmenta-espazio fisikoa kontsumitzaileen behar eta ohitura berrietara nahiz kudeaketa-eredu berrietara egokitzeko teknologia berrien proiektuak izango dira:

1) Saltokiko kudeaketa digitalizatzea, negozioaren barne-kudeaketako eragiketa bat edo batzuk optimizatuz, integratuz edo automatizatuz, hornitzaileekiko eta azken bezeroarekiko harremana barne.

2) Negozioaren bideragarritasunari, erabakiak hartzeari, transmisio potentzialari edo belau-naldi-erreleboari buruzko autodiagnostikoak egiteko tresna teknologikoak eskuratzea.

3) Merkataritza ibiltariaren eraldaketa digitala eta merkaturatzeko bide laburrak.

4) Salmenta-prozesua hobetzea, establezimenduan edo merkataritza-eremuan formula omnikanalen bidez eskaerak jasotzea erraztuko duten teknologia berriak txertatuz.

5) Teknologia berriak aplikatzea salmenta-puntuan, erositako produktuen ordainketa-prozesua hobetzeko eta eguneratzeko, bai eta merkataritza-establezimenduetan ilarak eta pilaketak saihesteko, txanden kudeaketa hobetzeko eta aldez aurreko bisita erreserbatzeko ere.

6) Establezimendu fisikoan erosketa-esperientzia hobetuko duten altzari teknologikoak erostea.

7) Bezeroekiko harremanetan marketin erlazionaleko edo harreman-hobekuntzako teknikak txertatzea.

c) Jasagarritasunari eta ekonomia zirkularrari lotutako gastuak: energiaren eta baliabideen kontsumoaren efizientzia hobetzeko irtenbide teknologikoak aplikatzeko proiektuak izango dira:

1) Saltokiek eta kontsumitzaileek beren establezimenduetan sargaien kontsumoa murrizteko inbertsioak, eta horien ordez ingurumena gehiago errespetatzen duten beste aukera batzuk ezartzea.

2) Produktuak edo, hala dagokionean, hondakinak banatzeko, entregatzeko eta itzultzeko eragiketak optimizatzea, kostuak eta ingurumen-inpaktua murriztuko dituzten teknologia eta lankidetzak-ekosistema berriak erabiliz, eta, horretarako, azken miliari arreta berezia eskainiz.

3) Merkataritza-establezimenduetan energia-kontsumoaren eta bestelako horniduren efizientzia hobetzeko irtenbide teknologikoak, oinarri teknologikoko prozesuak, ekoefizienteak edo hondakinak (biohondakinak, papera, plastikoa, beira, etab.) behar bezala bereizteko prozesuak ezartzea, ondoren birziklatzeko eta balorizatzen.

4) Entrega-puntu adimendunak instalatzea.

5) Energia-iturri berriztagarriak instalatzea eta berotzeko potentzial handiko gas hozgarri fluordunak erabiltzen dituzten teknologiak atmosfera berotzeko ahalmen gutxiko edo txikiko teknologiek inordeztea merkataritza-erabilerako establezimenduen klimatizazioan.

6) Jasangarritasuna, klima-aldaketara egokitzea eta efizientzia areagotzera bideratutako beste proiektu eta irtenbide batzuk, ekonomia erresiliente eta karbono gutxikorantz bideratuak, baita hondakin-ekoizpena murriztera eta produktu-berrerabilpena, ekonomia zirkularra eta hondakinak zero izatea sustatzera bideratuak ere.

d) Hornidura-kateari eta trazabilitateari dagozkien gastuak: konponbide teknologikoen proiektuak izango dira, hornidura-katean, trazabilitatean eta ekonomia zirkularrean azken miliako entregaren efizientzia eta jasangarritasuna hobetzeko eginak:

1) Tokiko ekoizleen, merkataritzako ETE-en eta banatzaileen arteko elkarreragina eta elkar-lana bermatzeko lankidetzeta-plataformak.

2) Banatzaileen merkataritza elektronikoko webguneetan tokiko edo zero kilometroko hornitzaileak integratzea bultzatzeko gastuak.

3) Teknologia berrietan egindako inbertsioak, banaketa-kanal osoan –bai linealean, bai bidalketan eta banaketan– produktuaren trazabilitatea edo beste ezaugarri batzuk ezagutzeko.

4) Lineal fisikoan eta online linealean eskainitako aukera optimizatzea.

5.– Elkarreentzako laguntza-lerroaren barruan, honako hauek lagundu ahalko dira diruz:

a) Bazkideen kolektiboaren eraldaketa digitalera bideratutako gastuak: online merkataritza-estrategiaren eta komunikazio-estrategiaren, negozio-ereduaren eta erosketa-esperientziaren hainbat eremu hobetzeko teknologia berrien proiektuak izango dira:

1) Kontsumitzaile-arreta, harekiko harremana eta haren gaineko ezagutza hobetzea, eta fidelizatzea, teknologia berriak eta analitika aurreratuko teknikak erabiliz.

2) Elkarreentzako eraldaketa digitalean inbertitzea, salmenta-funtzionaltasunak txertatu, mantendu edo hobetzeko, omnikanalitatea sustatzen duten eta bezeroen ingurune digitaleko erosketa-esperientzia hobetzen duten kanal digitalen bidez.

3) Komunikazioa eta ikusgarritasuna hainbat bitarteko edo euskarri digitaletan, teknologia berriak erabiliz.

4) Merkatuari, lehiari edo SEOri buruzko metrikak eta analisiak.

5) Zibersegurtasuneko soluzioak.

6) Barne-komunikazioa hobetzeko plataformak, edo negozioen artean edo intereseko beste figura batzuen artean, elkarreentzako ekintzak abiarazteko, elkarreentzako mesedetan eta lan egiteko modua hobetzeko, bai eta bezero-arreta hobetzeko eta kopurua handitzeko ere.

7) Produktuak estandarizatzea eta informazioa sortzea.

8) Aplikazio informatikoak garatzea, telefono mugikor adimendunetarako edo produktu eta zerbitzu kolektiboak sustatzeko balio duten bestelako gailuetarako.

- b) Salmenta-puntua modu kolektiboan eraldatzeko gastuak.
- 1) Merkataritza ibiltariaren eraldaketa digitala eta merkaturatzeko bide laburrak modu kolektiboan.
  - 2) Salmenta-prozesua hobetzea, establezimenduan edo merkataritza-eremuan formula omni-kanalen bidez eskaerak jasotzea erraztuko duten teknologia berriak txertatuz.
- c) Jasangarritasunari eta ekonomia zirkularrari lotutako gastuak: energiaren eta baliabideen kontsumoaren efizientzia hobetzeko irtenbide teknologikoak aplikatzeko proiektuak izango dira:
- 1) Saltokiek eta kontsumitzaileek sargaien kontsumoa murrizteko inbertsioak, eta horien ordeztu ingurumena gehiago errespetatzen duten beste aukera batzuk ezartzea.
  - 2) Produktuak edo, hala dagokionean, hondakinak banatzeko, entregatzeko eta itzultzeko eragiketak optimizatzea, kostuak eta ingurumen-inpaktua murriztuko dituzten teknologia eta lankidetzak-ekosistema berriak erabiliz, eta, horretarako, azken miliari arreta berezia eskainiz.
  - 3) Merkataritza-establezimenduetan energia-kontsumoaren eta bestelako horniduren efizientzia hobetzeko irtenbide teknologiko kolektiboak, oinarri teknologikoko prozesuak, ekoefizienteak edo hondakinak (biohondakinak, papera, plastikoa, beira, etab.) behar bezala bereizteko prozesuak ezartzea, ondoren birziklatzeko eta balorizatzeko.
  - 4) Jasangarritasuna, klima-aldaketara egokitzea eta efizientzia areagotzera bideratutako beste proiektu eta irtenbide kolektibo batzuk, ekonomia erresiliente eta karbono gutxikorantz bideratuak, baita hondakin-ekoizpena murriztera eta produktu-berrerabilpena, ekonomia zirkularra eta hondakinak zero izatea sustatzera bideratuak ere.
- d) Hornidura-katea eta trazabilitateari dagozkion gastuak: azken miliako entregaren efizientzia eta jasangarritasuna hobetzeko konponbide teknologikoen proiektuak izango dira:
- 1) Tokiko ekoizleen, merkataritzako ETE-en eta banatzaileen arteko elkarreragina eta elkar-lana bermatzeko lankidetzak-plataformak.
  - 2) Banatzaileen merkataritza elektronikoko webguneetan tokiko edo zero kilometroko hornitzaileak integratzea bultzatzeko gastuak.
  - 3) Teknologia berrietan egindako inbertsioak, banaketa-kanal osoan produktuaren trazabilitatea edo beste ezaugarri batzuk ezagutzeko, bai linealean, bai bidalketan eta banaketan.
- e) Diruz lagundu daitezkeen bestelako gastuak.
- 1) Merkataritza-guneetan WiFi sareak ezartzea.
  - 2) Merkataritza-eskaintzari buruzko informazioa ematen duten aplikazioak, baita tokitik hurbil dauden arkitektura-, historia- edo kultura-ondareko elementuena edo kultura- edo arte-ekitaldietarako deialdiena, turismoa hainbat esparrutan sustatzeko: gastronomian, kulturen eta erosketetan.
- 6.– Artikulu honetan zerrendatutako edozein gastutarako, soluzio teknologikoak behar bezala ezartzeko ezinbestekotzat jotzen diren inbertsioak lagunduko dira, eta, horrela, honako hauek ezagutu ahal izango dira: abiapuntuko egoera, merkataritza-sektorearen proiektuen eta beharren egokitasuna, emaitzak eta kualitatiboki eta kuantitatiboki espero den inpaktua.

7.– Diruz lagundu daitekeen gastuaren zenbatekoak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 118. artikulua kontratu txikirako ezarritako zenbatekoak gainditzen dituenean, onuradunak gutxienez hiru eskaintza eskatu beharko ditu, gutxienez hiru hornitzaileak, obrarako konpromisoa hartu aurretik, zerbitzua eman aurretik edo ondasuna entregatu aurretik, non eta haien ezaugarri bereziak direla-eta merkatuan ez den aski entitate haiek egin, eman edo entregatzeko, edo non eta dagokion deialdia argitaratu aurretik ez den egin gastua. Berariaz justifikatu beharko da, memoria batean eta IV B eranskinaren arabera, gutxienez hiru eskaintza aurkezteko ezintasuna

Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 118. artikuluan xedatutakoaren ondoretarako, kontratu txikiak 40.000 eurotik beherako balio zenbatetsia dutenak dira, baldin eta obra-kontratuak badira, edo 15.000 eurotik beherakoak, baldin eta hornidura- edo zerbitzu-kontratuak badira, alde batera utzi gabe estatu-mailan zentralizatutako obrei, zerbitzuei eta horniketei buruz 229. artikuluan ezarritakoa.

Eskaintzak dirulaguntza eskatzean aurkeztu behar dituzte, eta, haien artean, efizientzia- eta ekonomia-irizpideei jarraituz egingo da hautaketa. Eskaintza ekonomikoena hautatzen ez badute, memoria batean berariaz justifikatu beharko dute hori, IV B eranskineko ereduaren arabera.

8.– Gastuaren kontzeptuak, finantzarritzat jotzeko, banan-banan zehaztu beharko dira eskabide-galdetegian eta memorian, II. eranskineko ereduari jarraituz, eta eskatzailearen lerroaren arabera: A) ETEak eta B) Elkarteak. Bestela, ez dira kontuan hartuko gastu finantzarriaren konfigurazioan.

9.– Entitate onuradunek Europar Batasunaren autonomia estrategiko eta digitalaren helburua lortzen lagundu beharko dute, bai eta hornidura-katearen segurtasuna bermatu ere, kontuan hartuta nazioarteko testuingurua eta konponbidearen parte izan daitekeen edozein osagai edo azpisistema teknologiko sentikor eskuragarri dagoela, Europar Batasunean kokatutako hornitzaileei lotutako ekipoa, osagaiak, sistemen integrazioak eta softwarea eskuratuta.

10.– Neurri horrek ez du etiketa berde edo digitalik Suspertze eta Erresilientzia mekanismoa ezartzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 Erregelamenduaren VI. eta VII. eranskinetan aurreikusitako baldintzetan.

8. artikulua.– Diruz lagundu ezin diren gastuak.

1.– Ez dira diruz lagunduko dirulaguntza eskatu duen enpresak berak edo elkarteak egindako lanak, ez eta proiektuak ere, baldin eta aktiboen saltzailea edo jardueraren emailea enpresa edo elkarte eskatzailea bera bada, edo autofakturazioa erator daitekeen antzeko kasuren bat badago.

2.– Zeharkako zergetatik eratorritako gastuak ez dira inola ere diruz lagunduko, eta, zehazkiago, balio erantsiaren gaineko zergarenak (BEZ).

3.– Inola ere ez dira diruz lagunduko hornidurak, jarraipena, mantentze-lanak edo soluzio teknologiko baten ezarri ondorengo funtzionamendurekin eta hobekuntzarekin lotutako beste edozein gastu, ezta softwarearen edo ekipoen eguneratzeak eta berme-zabalkuntzak ere.

4.– Ez dira diruz lagunduko ETE-en eta elkarten jardueren funtzionamendurako gastu arruntak, hala nola establezimenduen errentamenduak, materiala eta hornidurak eskuratzea, edo gastu arruntak, oro har.

5.– Ez da diruz lagunduko ETE-en edo elkarten administrazioaren berezko proiektuen edo gastuen eragiketa- eta mantentze-gasturik.

6.– Ez dira diruz lagunduko administrazio-baimenak, lizentziak, baimenak, abalen eta/edo fidantzen kostua, isunak, tasak, zergak edo tributuoak.

7.– Ez da diruz lagunduko administrazio-izapideei, kontsultei, kontratazioei edota kudeaketei lotutako edozein gastu, baimenak edo lizentziak lortzeko beharrezkoak izan arren.

8.– Ez dira diruz lagunduko eskatzaileak sinatutako aseguruak.

9.– Ez dira diruz lagunduko ekipo erabilietan egindako inbertsioak.

10.– Ez dira diruz lagunduko finantza-gastuak, pasiboaren berregituraketak edo birfinantzaketak, zirkulatzailerak eta beste zerga edo tasa batzuk. Era berean, ez dira diruz lagunduko edozein motatako eragiketen banku-gastuak.

11.– Ez dira diruz lagunduko gerora jendeari saldu ahal izango zaizkion higiezinak eta erakusketak eta proba-artikuluak, ez eta aldi baterako erakusmahaiak jartzea ere.

12.– Ez dira diruz lagunduko garraio-elementuak.

13.– Ez dira diruz lagunduko telefono mugikorrak, smartphoneak, ordenagailu pertsonalak edo tabletak, salbu eta programa honi dagokionez diruz lagundutako soluzio teknologikoarekin zuzenean lotuta badaude.

14.– Ez dira diruz lagunduko zigor penalei lotutako kostuak eta prozedura judizialen gastuak.

15.– Ez dira diruz lagunduko proiektuari lotuta ez dauden zeharkako kostuak.

16.– Ez dira diruz lagunduko merkataritza-jarduera COVID-19ra egokitzearekin zerikusia duten proiektuak.

17.– Ez dira diruz lagunduko Europar Batasunak klimaren eta ingurumenaren arloan dituen arauak eta lehentasunak erabat betetzen ez dituzten eta «kalte nabarmenik ez eragiteko» printzipioa Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2020ko ekainaren 18ko 2020/852 (EB) Erregelamenduaren 17. artikulua ildotik erabat betetzen ez dituzten proiektuak (erregelamendu hori inbertsio jasagarriak errazteko esparru bat ezartzeari buruzkoa da eta 2019/2088 (EB) Erregelamendua aldatzen du). Entitate onuradunek bermatu behar dute betetzen direla.

Nolanahi ere, ezin izango dira finantzatu inbertsio horretarako Kontseiluaren Betearazpen Erabakian ezarritako bazterte zerrendan jasotako jarduerak:

a) Erregai fosilekin lotutako inbertsioak, horien ondorengo erabilera barne.

b) EBko isurketa-eskubideen salerosketa-erregimenaren esparruko jarduerak, baldin eta aurreikusten bada jarduera horiek eragindako berotegi-efektuko gasen emisioak ez direla dagokien erreferentzia-parametroen azpitik egongo.

c) Sortutako hondakinak tratamendu mekaniko-biologikoaren (TMB), errausketaren edo isurketaren bidez tratatzeari lotutako jarduerak.

d) Hondakinak epe luzera ezabatzeak epe luzean ingurumen-kalteak eragiteko arriskua ekar dezaketen jarduerak (adibidez, hondakin nuklearrak sortzen dituztenak).

Baldintza-agiriak eskatuko du estatuko eta EBko ingurumen-legedia betetzen dituzten jarduerak soilik aukeratu ahal izango direla.

Gainera, eskatuko du estatuko eta Europako ingurumen-legedia betetzen dituzten jarduerak soilik aukeratu ahal izango direla.



#### 9. artikulua.– Proiektuaren gutxienerako inbertsioa eta mugak.

1.– Finantzaketa jasotzeko aurkezten diren inbertsio-proiektuak Euskal Autonomia Erkidegoan gauzatu beharko dira, eta agindu honen 7. artikuluan jasotako gastu-kategorietako batean kokatu beharko dira, gutxienez.

2.– Diruz lagundu daitezkeen proiektuei dagokien gutxienerako inbertsioak, zerga guztiak kenduta, honako zenbateko hauek izan beharko ditu:

a) ETE-entzat, gutxienerako inbertsioa 1.500 eurokoa izango da (BEZik gabe).

b) Elkarteen edo elkarteen batasunen kasuan, gutxienerako inbertsioa 50.000 eurokoa izango da (BEZik gabe).

3.– Bakar-bakarrik onartuko dira 500 euro edo gehiagoko fakturak (BEZik gabe), diruz lagundu daitezkeen azalpenen deskribapena ondo identifikatuta dutenak; ez dira onartuko kodetutako kontzeptuak.

4.– Ez da onartuko Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuaren 2022ko azaroaren 29ko Aginduaren bidez dagoeneko diruz lagundu diren gastuen fakturarik; agindu hori EHAAren 240. zenbakian argitaratua da, 2022ko abenduaren 19an, eta, haren bidez, oinarriak ezarri eta deialdi publikoa egiten da Euskal Autonomia Erkidegoko merkataritza modernizatzeko programaren laguntzetarako (Funts Teknologikoa), Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan (Europar Batasunak finantzatua-Next GenerationEU).

#### 10. artikulua.– Laguntzen mugak.

1.– Dirulaguntza osoaren gehieneko zenbatekoa diruz lagun daitezkeen gastuen % 100era artekoa izan daiteke.

2.– Entitate eskatzaileak emandako dirulaguntza ezin izango da 50.000 eurotik gorakoa izan ETE-en kasuan, eta 100.000 eurotik gorakoa elkarteen kasuan.

3.– Nolanahi ere, finantzaketaren zenbatekoak ezin izango du proiektuaren kostua gainditu.

4.– Laguntzak eman ahal izateko, kreditu egokia eta behar adinakoa egon behar da laguntzaren ebazpena ematen den unean.

#### 11. artikulua.– Azpikontratazioa.

1.– Onuradunak proiektuaren % 100 azpikontratatu ahal izango du, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 29. artikuluan eta azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 68. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Inola ere ezingo dira dirulaguntzaren kostua handiagotzen duten jarduerak azpikontratatu, jardueraren edukiari balio erantsirik gehitzen ez badiote eta ez badira merkatuko baldintza normaltan egiten.

Entitate onuradunak, betiere, azpikontratistei buruzko informazioa eman behar dio dirulaguntza ematen duen organoari, idatziz, eta bere kontraten eta azpikontraten interes-gatazkarik ezaren adierazpenak (IGEA) aurkeztu.

2.– Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 29.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, hirugarrekin azpikontrataturako jarduerak dirulaguntzaren % 20tik gora hartzen badu eta kopuru hori 60.000 eurotik gorakoa bada, azpikontratazioak betekizun hauek konplitu beharko ditu:

a) Kontratua idatziz egitea.

b) Dirulaguntza ematen duen erakundeak aldez aurretik kontratua egiteko baimena ematea. Eskatzaileak kontratua emakida-ebazpena eman aurretik aurkeztu beharko du baimena emateko; kasu horretan, baimena eman zaiola ulertuko da ebazpen horretan onuradun deklaratzeko bada.

Kontratua ezin bada aurkeztu emakida-ebazpena eman aurretik, onuradunak aldez aurreko baimena eskatuko dio organo emaileari, eta organo horrek ebazpena emango du hogeita hamar egun naturaleko epean. Organo emaileak ez badu epe horretan ematen ebazpena, eskabidea ezetsizat joko da.

3.– Baldin eta onuradunak osorik edo zati batean hitzartu badu diruz lagundutako jarduerak gauzatzea berarekin lotutako pertsona edo entitateekin, 12. artikuluan xedatutakoaren arabera egingo du hori.

4.– Azpikontratazioa deialdia argitaratu aurretik egin bada, baimen-eskaera laguntza-eskabi-dearekin batera aurkeztea onartuko da, baina horrek ez du ebazpenaren zentzua baldintzatuko.

5.– Azpikontratazioa hitzartzeko sinatutako kontratuan egiaztatu beharko da datu pertsonalak tratatzeko behar diren bermeak jasotzen direla, eta horiek betetzeko behar diren klausulak jaso beharko dira, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera.

12. artikulua.– Lotutako pertsonak edo entitateak kontratatzea edo azpikontratzea.

1.– Dirulaguntzen Lege Orokorraren 29.7.d) artikuluan xedatutakoaren arabera, ez da inola ere onartuko onuradunak itunak egitea diruz lagundutako jardueren exekuzioa onuradunarekin lotura duten pertsonen edo entitateen esku uzteko, osorik edo zati batean, salbu eta inguruabar hauek gertatzen badira:

1) Erakunde emailearen berariazko baimena aldez aurretik lortzea.

2) Diruz lagundu daitekeen zenbatekoak ez gainditzea lotutako entitatearen pean eroritako kostua, eta merkatuko baldintza arruntan arabera egitea. Kostua justifikazioan egiaztatuko da, onuradunaren gastuak egiaztatzeko ezarritako baldintza beretan.

Baldintza horiek betetzeko, dagokion baimena eskatu beharko zaio organo kudeatzaileari jar-duera gauzatu aurretik, eta hornitzaile desberdinen hiru eskaintza aurkeztu beharko dira gutxienez.

2.– Dirulaguntzen Lege Orokorraren 29.7.d) artikuluan xedatutakoaren ondoretarako, lotura dagoela ulertuko da Dirulaguntzen Lege Orokorraren Erregelamenduaren 68.2 artikuluan jasotako inguruabarren batean dauden pertsona fisiko edo juridikoekin edo nortasunik gabeko elkarteekin:

a) Ezkontza-harremanaren bidez lotutako pertsona fisikoak edo antzeko afektibitate-harremanarekin, laugarren mailarainoko odol-ahaidetasunarekin edo bigarren mailarainoko ezkontza-ahaidetasunarekin lotutako pertsonak.

b) Aldizkako ordainketen bidez ordaindutako lan-harremana duten pertsona fisiko eta juridikoak.

c) 2. apartatuan aipatzen den onuradunaren kide elkartuak izatea, eta Dirulaguntzen Lege Orokorraren 11. artikuluan 3. apartatuan aipatzen diren nortasun juridikorik gabeko entitateetako kide edo partaideak izatea.

d) Sozietate bat eta haren bazkide nagusiak edo haren kontseilari edo administratzaileak, bai eta ezkontideak edo antzeko harreman afektiboa duten pertsonak eta laugarren mailarainoko odol-ahaidetasun edo bigarren mailara arteko ezkontza-ahaidetasuneko senideak ere.

e) Balore Merkatuari buruzko uztailaren 28ko 24/1988 Legearen 4. artikulua arabera, talde berean sartzeko eskatzen diren baldintzak betetzen dituzten sozietateak.

f) Nortasunik gabeko pertsona juridikoak edo taldeak eta horien legezko ordezkariak, ugazabak edo administrazioa gauzatzen dutenak, bai eta ezkontideak edo antzeko harreman afektiboa duten pertsonak eta laugarren mailarainoko odol-ahaidetasun edo bigarren mailara arteko ezkontza-ahaidetasuneko senideak ere.

g) Pertsona juridikoak edo nortasunik gabeko taldeak, eta pertsona fisikoak, juridikoak edo nortasunik gabeko taldeak, baldin eta, lege- eta estatutu-arauen edo kontratu-akordioaren arabera, % 50etik gora parte hartzeko eskubidea badute lehenengoan onuran.

### 13. artikulua.– Izapidetze elektronikoa.

1.– Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, izapidetze elektronikoa nahitaezkoa izango da prozeduraren fase guztietan.

Eskabidea egin ondorengo izapideak (espedientera sarbidea izatea, jakinarazpenak, errekerimenduak, dokumentazioa aurkeztea eta prozeduran inplikaturako gainerako izapideak) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko egoitza elektronikoko «Nire karpeta» aplikazioaren bidez soilik egingo dira (<https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>).

2.– Eskatzaileak, eskabidea aurkezteko erabili zuen ziurtagiriarekin, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko egoitza elektronikora jo ahal izango du. Bertan, aurkeztutako dokumentuak eta espedientearen izapidetze-egoera kontsultatu ahal izango ditu.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa onartutako identifikazio eta sinadura elektronikorako bitartekoak helbide honetan daude eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/identifikazio-elektronikorako-onartutako-bitartekoak/web01-sede/eu/>

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa horretan egongo dira eskuragarri, izapideak bide elektronikoen bidez egiteko zehaztapenak, bai eta eskabideen formularioak, erantzukizunpeko adierazpenak eta prozeduraren faseetan bete beharreko gainerako ereduak ere, eta, hala dagokionean, nahitaez erabili beharko dira. Era berean, eredu horien edukiak agindu honen eranskinetan daude jasota.

4.– Jakinarazpen elektronikoa urriaren 1eko 39/2015 Legearen 43. artikuluan aurreikusitakoaren arabera egingo dira.

Jakinarazpen-sistemak aukera emango du egiaztatzeko noiz eta zer ordutan jarri den interesdunaren eskuragarri jakinarazitako egintzaren edukia. Jakinarazpena ez onartutzat joko da haren edukia ez bada eskuratu jakinarazpena eskura jarri zenetik hamar egun natural igarotakoan; izapidea gauzaturat joko da, eta prozedurak jarraitu egingo du.

5.– Horrez gain, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak egindako jakinarazpenaren abisuen sistema osagarri bat bidaliko die entitate interesdunei, eskabide-inprimakian adierazitako telefono mugikorretara SMSak edo helbide elektronikotara mezu elektronikoa bidaliz. Abisu horiek ez dute inola ere jakinarazpen-baliorik izango.

6.– Egoitza elektronikoa, interesdunek, elektronikoki modu seguruan identifikatu ondoren, jakinarazi zaizkien prozedura-egintzak kontsultatu ahal izango dituzte, eta organo jarduleak eska ditzakeen agiri osagarriak aurkeztu ahal izango dituzte.

7.– Jakinarazpenak bitarteko elektronikoen bidez egitearen ondoretarako, eskatzaileek entitatearen ordezkari izandako aldaketen berri eman beharko diete organo jarduleei, aldaketak izan bezain laster. Entitatearen ordezkariaren aldaketaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera egiten diren jakinarazpenetan gauzatuko da aldaketa. Data horren aurretik espedientean agertzen den ordezkariari zuzendutako jakinarazpenak behar bezala egindakotzat joko dira.

14. artikulua.– Eskabideak aurkeztea eta horretarako epea.

1.– Eskabide bakarra aurkeztuko du 5. artikuluko baldintzak betetzen dituen ETE edo elkarte bakoitzak, egin asmo dituen proiektu guztietarako. Eskabidea osotzat jotzeko, I. eranskineko inprimakia osorik bete behar da, eta, horrez gain, agindu honen 15. artikuluan zerrendatutako dokumentazioa ere aurkeztu behar da.

Eskabidea eskuratu eta betetzeko bide bakarra Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko egoitza elektronikora jotzea izango da. Helbidea honako hau da: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1026909>.

2.– Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, eta deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da.

3.– Ez dira onartuko 2. apartatuan ezarritako epetik kanpo aurkeztutako eskabideak.

4.– Eskabidearekin batera, entitate eskatzailea ordezkatzeko legezko gaitasuna duen pertsonaren edo entitatearen sinadura elektronikoa aitortuaz gain, harekin batera aurkeztu beharreko dokumentu guztiak eta Administrazioak urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoaren arabera eska ditzakeenak ere aurkeztu beharko dira.

5.– Ordezkariarekin jardun nahi izanez gero, agindu honen 16. artikuluan ezarritakoaren arabera jardungo da.

6.– Laguntza-eskabidea, eskatutako dokumentazioarekin batera, aukeratzen den Euskal Autonomia Erkidegoko edozein hizkuntza ofizialetan aurkeztu ahal izango da. Era berean, laguntza-eskabidearen ondoriozko proiektuetan, eta prozedura osoan, entitate eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da, Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean ezarritakoaren arabera.

7.– Espedientearen tramitazioaren edozein unetan begiratu ahal izango da eskabidean jasotako datuen egiazkotasuna. Erantzukizunpeko adierazpenean agertzen den daturen bat faltsua izanez gero, entitate eskatzaileak zehapen administratiboa edo penala jasoko du, zer araubide dagokion.

8.– Eskabideak aurkezteak esan nahi du espresuki eta formalki onartzen direla deialdi honetako oinarriak.

15. artikulua.– Zer dokumentu aurkeztu behar den eskabidearekin batera.

1.– Eskabide bakoitzean, elektronikoki sinatutako eskabide-inprimakiaz gain, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

a) Laguntza-eskabidearekin batera aurkeztu behar den dokumentazioa, onuradun mota edozein dela ere:

1) Zerga-egoitza egiaztatzea.

2) Pertsona edo entitate eskatzailearen ordezkari-ahalordea, halakorik bada. Eskabidea izenpetzen duenaren ahalordearen egiaztapen balioduna. Ahalordea egiaztatzeko, zuzenbidean baliozkoa den eta ahalordea badela fidagarritasunez erakusten duen edozein bitarteko erabiliko da, ordezkariari buruzko agindu honen 16. artikuluen arabera.

3) Memoria deskribatzailea, elektronikoki sinatua, gutxienez honako hauek jasoko dituen: egin behar diren proiektuak eta inbertsioak, diruz lagundu daitekeen proiektu bakoitzari dagozkion partidak banakatu eta kuantifikatuko dituen (BEZik gabe); dirulaguntzaren xedea, eta emaitzei buruzko aurreikuspena, harekin lortu nahi diren adierazleetan oinarritua. Memoria hori II A eranskinean eta II B eranskinean ezarritako eruedetara egokituko da, laguntza eskatzen duen onuradun motaren arabera.

Memoriak aukera eman beharko du jakiteko zein den abiapuntuko egoera, proiektuen egokitasuna eta merkataritza-sektorearen beharrak, emaitzak eta zer inpaktu espero den kualitatiboki eta kuantitatiboki.

4) Aurrekontuak, proformako fakturak edo fakturak, non argi eta garbi zehaztuko baitira dirulaguntzaren xede diren kontzeptuak eta inbertsioak.

Diruz lagundu daitekeen gastuaren zenbatekoak agindu honen 7.7 artikuluan ezarritako zenbatekoak gainditzen baditu, eskatzaileak gutxienez hiru eskaintza aurkeztu beharko ditu, elkarren artean alderagarriak direnak, IV A eranskinean ezarritako eruedaren arabera.

Eskatzaileak, proposatzen duen aukera ez bada aurkeztutakoen artean ekonomikoena, edo ezin badaitezke aurkeztu aurreko paragrafoan aipatutako hiru eskaintzak, gainera, memoria bat aurkeztu beharko du, IV B eranskinaren arabera, egin duen aukera hori berariaz justifikatzeko.

5) Eskatzaileak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duten ziurtagiriak, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 22. artikuluan eta Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduaren 6. artikuluan xedatutakoaren arabera. Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren agindu hori Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan bai zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bai dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak betetzen direla egiaztatzeari buruzkoa da.

6) Berrogeita hamar langile baino gehiago dituzten enpresen kasuan, sexu-jazarpenari edo sexuan oinarritutako jazarpenari aurrea hartzeko eta aurre egiteko neurriak ezarri izana egiaztatzen duen dokumentazioa, Estatuaren legediak emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan ezarritako baldintzetan, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.5 artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

7) Bestela egiaztatzerik ez dagoenean, Administrazioarekin laguntzak, maileguak edo aurrerakinak itzultzeagatik zorrik ez izatearen erantzukizunpeko adierazpena, eta Europako Batzordeak laguntza bat legez kanpokotzat eta merkatu erkidearekin bateraezintzat jo ondoren berreskuratze-agindu baten mende ez egotearen erantzukizunpeko adierazpena.

8) Erantzukizunpeko adierazpena, oinarrien agindu honen V. eranskinean ezarritako eruedaren arabera, zeinaz aditzera ematen baita «kalte nabarmenik ez eragiteko» printzipiora egokitzen dela («*Do not significant harm* – DNSH» printzipioa) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 2. artikuluan 6. apartatuan ezarritakoaren arabera, Ministro Kontseiluak 2021eko apirilaren 27an onartutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean aurreikusitakoarekin bat.

9) Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpena (IGEA), agindu honen VI. eranskinean adierazitako moduan.

- 10) Iruzuraren aurkako politikara atxikitzeko eta hura ezagutzeko erantzukizunpeko adierazpena, agindu honen VII. eranskinean ezarritakoaren arabera.
  - 11) Finantzaketa bikoitzik ez duelako erantzukizunpeko adierazpena, agindu honen VIII. eranskinean ezarritakoaren arabera.
  - 12) SEEPeko jarduketak betearazteari dagokionez administrazio publiko inplikatuaren artean datuak auditoriak egiteko eta funtsen erabilera kontrolatzeko asmoz lagatzea eta tratatzea onartzeko adierazpena, indarrean dagoen araudiaren eta IX. eranskinean ezarritakoaren arabera.
  - 13) SEEP-NextGenerationEUren jarduketak egiteko ezarri diren eta kudeatu beharreko esparruari eragiten dioten zeharkako printzipioak betetzeko konpromisoari buruzko erantzukizunpeko adierazpena, agindu honen X. eranskinean ezarritakoaren arabera.
  - 14) Berariatzko baimena, XI. Eranskinean ezarritakoaren arabera, Batzordeak, Iruzuraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoak (OLAF), Europako Kontuen Auzitegiak, Europako Fiskaltzak eta estatuko agintaritzak eskudunek beren eskumenak balia ditzaten Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 22.2.e) artikuluan eta Europako Parlamentuaren 2018ko uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Finantza-Erregelamenduaren 129. artikuluan xedatutakoari dagokionez.
  - 15) Onuradunaren benetako titulartasuna identifikatzeko erantzukizunpeko adierazpena, XII. eranskinaren arabera. Identifikatzeko, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015eko maiatzaren 20ko 2015/849 (EB) Zuzentarauaren 3. artikuluan 6. puntuan xedatutakoa beteko da, irailaren 29ko HFP/1031/2021 Aginduaren 10. artikuluan ezartzen denari jarraikiz betiere, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 22. artikuluari lotuta.
- Urtarrilaren 24ko HFP/55/2023 Aginduaren 4. artikuluan aipatzen den egiaztapena eginda datu-rik ez badago eskatzailearen baten benetako titulartasunari buruz, Administrazioak eskatzen dizkion datuak bost egun baldiodun igaro baino lehen aurkezteko eskatuko zaio eskatzaileari. Informazio hori epearen barruan ez aurkezteak eskatzailea prozeduratik baztertzea dakar.
- 16) Jarduera ekonomikoak dituzten entitate onuradunek, irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 8. artikuluan arabera, egiaztatu behar dute Zerga Administrazioeko Estatu Agintziaren enpresaburu, profesional eta atxikitzaileen erroldan edo Foru Zerga Administrazioaren errolda baliokidean inskribatuta daudela, eta inskripzio horrek laguntza eskatzen den egunean benetan duten jarduera ekonomikoa azaldu behar du.
  - 17) Azpikontratazioa baliatuz gero, agindu honen 11. artikuluan eskatzen diren agiriak aurkeztu beharko ditu eskatzaileak.
  - 18) Loturaren bat duten pertsonak kontratatuz edo azpikontratatzuz gero, agindu honen 12. artikuluan eskatzen diren agiriak aurkeztu beharko ditu eskatzaileak.
  - 19) Merkataritza Eragiketetan Berankortasunaren Aurka Borrokatzeko Neurriak Ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitako ordainketa-epeak betetzeko, kontabilitateko araudiaren arabera galdu-irabazien kontu laburtua aurkeztu ezin duten sozietateek legezko ordainketa-epeak bete dituztela egiaztatu beharko dute, Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean inskribatutako auditore batek emandako ziurtagiriaren bidez, zeinean kontuan hartuko baita enpresa bezeroaren ordainketen benetako epea, enpresa hornitzaileak alde aurretik kobratzeko duen edozein finantzaketa alde batera utzita.

20) Beste erantzukizunpeko adierazpen batzuk, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan eska daitezkeen betebeharrak betetzeko agintari eskudunek estatuko eta Europako araudiaren arabera onartutako erduei jarraituz eginak.

1), 2) eta 5) apartatuen betekizuna automatikoki egiaztatuko du Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak, dirulaguntza emateko ebazpena eta, hala badagokio, likidatzekoa eta ordaintzekoa eman aurretik. Hala ere, pertsona edo entitate eskatzaileak, bai eta ondasun-erki-degoetako eta sozietate zibiletako partaideek ere, berariaz egin ahal izango diote uko egiaztapen horri, eta, kasu horretan, eskakizunak betetzen dituztela egiaztatzen duen dokumentazio eguneratua aurkeztu beharko dute beren kontura.

b) Dokumentazio orokorrarekin batera, oinarri-agindu honetako 5. artikuluko 1.1 apartatuan adierazitako ETE-ek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

1) Laguntza ematen duen organoak egiaztapen hori lortzeko baimenaren aurka eginez gero, enpresaren titularraren NANA, pertsona fisikoa bada, eta enpresaren IFZ, pertsona juridikoa edo nortasun juridikorik gabeko entitateak badira (ondasun-erkidegoak eta sozietate zibilak).

2) Enpresaren jarduera nagusia egiaztatzen duen dokumentazioa. Jarduera horrek 2009ko Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionalan (EJSN-2009) 45, 46 edo 47 kodeetan sartuta egon behar du, eta honela egiaztatu behar da: notario-agiriaren bidez (sozietatearen eskriturak), Gizarte Segurantzak emandako ziurtagiri eguneratuaren bidez (enpresaren kotizazio-kontuaren kodearen txostena, alta emanda dauden langileen txostena), edo, autonomoen kasuan, lan-bizitzaren bidez. Enpresak berak aurkeztu beharko du dokumentazio hori, bai eta, hala badagokio, enpresa elkartuek edo hari lotutakoek ere.

c) Dokumentazio orokorrarekin batera, 5. artikuluko 1.2 apartatuan adierazitako elkarteek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

1) Laguntza ematen duen organoak egiaztapen hori lortzeko baimenaren aurka eginez gero, elkartearen IFKren fotokopia eta ordezkariaren NANA, hala badagokio.

2) Entitate eskatzailearen estatutuak eta haien aldaketak, halakorik bada, dagokion erre-gistroan behar bezala inskribatuta, edo, hala badagokio, eratu berri diren elkartearen kasuan, erregistroan inskribatzeko eskabidea.

3) Elkarteko organo eskudunen erabakia, laguntza eskatzea erabakitzen duena.

4) Presidenteak edo entitate eskatzailearen ordezkariak duen pertsonak elektronikoki sinatutako erantzukizunpeko adierazpena. Bertan, bazkide guztien zerrenda adierazi beharko da, eta, bazkide bakoitzari dagokionez, honako hauek zehaztu beharko dira: bazkidearen izena, garatzen duen jarduera, EJSNren sailkapenaren arabeko kodea eta EJSNren 45., 46. edo 47. kodeetan sartzeko jarduera duten bazkideen ehunekoa, III. eranskineko ereduaren arabera.

#### 16. artikulua.– Ordezkaritza.

1.– Entitate eskatzaileen edo onuradunen izenean dokumentuen sinadura edo aurkezpen elektronikoa egiten duten pertsona fisikoek jarduketa bakoitzerako behar den ordezkari izan beharko dute, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 5. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2.– Eskabidea izenpetzen duenak egiaztatu beharko du eskabidea aurkezten duen unean zuzenbidean jasota dagoen ahala duela pertsona juridiko eskatzailearen izenean eta haren ordezkari gisa jarduteko. Betebehar hori betetzen ez bada, eta zuzentzen ez bada, eskaeran atzera egin duela ulertuko da, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan ezarritakoaren arabera.

3.– Ordezkaritza beste pertsona bati eman ahal izango zaio, interesdunaren izenean jardun dezan bitarteko elektronikoen bidez, agindu honi buruzko prozedura guztietan. Horretarako, honako bitarteko hauek erabiliko dira:

– Ahalordetzeen Erregistro Elektronikoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Egoitza Elektronikoa kokatua (<https://www.euskadi.eus/ordezkarriak/>); edo hau:

– «Borondatezko legezko ordezkari egilestea inprimaki normalizatua» (<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/-/eskabidea/borondatezko-legezko-ordezkaritza-egilestea-inprimaki-normaldua/>), behar bezala formalizatua; eta eskabidearekin batera aurkeztu beharko da.

Pertsona juridikoek, gainera, ordezkari-ahalordearen kopia erantsi beharko dute, edo legezko beste edozein dokumentu, ahalorde-emailea entitate ordezkari-emailearen legezko ordezkari gisa legitimatzen duena.

Ordezkaritza identifikatzeko bitarteko elektronikoa onartu bat eduki beharko du. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa onartutako identifikazio eta sinadura elektronikorako bitartekoak helbide honetan daude eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/identifikazio-elektronikorako-onartutako-bitartekoak/web01-sede/eu/>

4.– Ondasun-erkidegoei eta sozietate zibilei dagokienez, eskaeran berariaz jaso behar dituzte taldeko kide bakoitzak hartutako gauzate-konpromisoak, bai eta horietako bakoitzari aplikatu beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa ere, eta taldearen ordezkari edo ahaladun bakar bat izendatu beharko dute, taldeari onuradun gisa dagozkion betebeharrak betetzeko aski ahal duena.

#### 17. artikulua.– Zuzenketak.

Baldin eta Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saileko Merkataritza Zuzendaritzak ohartarazten badu aurkeztutako eskabideak ez dituela betetzen eskatutako betekizunak, eskatzaileari hamar eguneko epea emango zaio, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, akatsa zuzen dezan edo eskatzen zaizkion nahitaezko dokumentuak aurkez dituzan, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.1 artikuluan xedatutakoaren arabera. Horrez gain, ohartaraziko zaio, hala egin ezean, eskaerari uko egin diola ulertuko dela, betiere 39/2015 Legearen 21. artikuluan eta azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 23.5 artikuluan aurreikusitako baldintzetan eman beharko den ebazpenaren ondoren.

#### 18. artikulua.– Prozedura kudeatzeko, izapidetzeko eta ebazteko organo eskuduna.

Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saileko Merkataritza Zuzendaritza izango da prozedura kudeatu, izapidetu eta ebazteko organo eskuduna.

#### 19. artikulua.– Dirulaguntza emateko prozedura.

1.– Deialdi honen xede diren dirulaguntzak norgehiagoka gabeko prozeduraren arabera izapidetuko dira, Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikartzeko presako neurriak onartzen dituen abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuaren 62. artikuluan arabera.

2.– Onuradun izateko eskatzen diren baldintzak betetzen direla kontuan hartuta emango dira dirulaguntzak, deialdian esleitutako aurrekontu-kreditua agortu arte, onuradun izateko diruz lagundu daitekeen egoera edo proiektua betetzen dela egiaztatu ondoren, dokumentazioa bete ondoren eta 3. eta 10. artikuluetan ezarritakoari jarraituz; ez da beharrezkoa izango eskabideen arteko alderaketarik egitea.



3.– 3. artikuluan ezarritako aurrekontu-zuzkidura agortzen bada, ez da beste laguntzarik emango, eta ebazteke dauden eskabideak ezetsi egingo dira, 21.4 artikulua araber.

Nolanahi ere, laguntzak emateko kontsignatutako kreditua amaituz gero, merkataritzaren arloan eskudun den Turismo eta Merkataritza Sailburuordetzaren titularrak administrazio-ebazpen bat emango du, gertaera horren berri emateko, eta bertan adieraziko du zer egunetan amaitu den kreditua. Ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, eta ez da onartuko une horretatik aurrera aurkeztu den laguntza-eskaerarik.

Lehendik aurkeztuta egonik deialdiaren zuzkidura agortzen den unean ebazteke dauden eskaerak ezetsi egingo dira, aipatutako arrazoiarengatik ezetsi ere, eta, horretarako, dagokion ebazpen-egintza emango da.

20. artikulua.– Eskabideak aztertu eta ebaluatzea.

1.– Merkataritza Zuzendaritzako teknikariek aztertu eta ebaluatuko dituzte epe barruan aurkeztu diren eskabideak, ezarritako betekizunak betetzen direla egiaztatuz; gainera, eskabide bakoitza behar bezala ulertzeko eta ebaluatzeko beharrezkotzat jotzen duten dokumentazio eta informazio osagarria eskatu ahal izango diote entitate eskatzaileari, 17. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

2.– Dirulaguntza-eskaerei erantzuteko, erreferentzia gisa hartuko dira eskaerari txertatutako azken dokumentuaren erregistro elektronikoaren data eta ordua. Zuzenketa egin behar bada, eskabidea balio osoz osatzeko behar den dokumentazioa aurkeztu den eguna eta ordua hartuko dira erreferentziatzat, eta, kasu guztietan ere, deialdirako kreditu erabilgarriaren mugara arte eta kreditu xedatuaren araber.

3.– Eskabide bakoitza aztertu eta ebaluatu ondoren, Merkataritza Zuzendaritzako teknikariek txostena egin beharko dute, egindako ebaluazioaren emaitza zehaztuz.

21. artikulua.– Prozedura ebaztea.

1.– Merkataritza Zuzendaritzako titularrak ordenan ebatziko du eskabideen gainean, espedienteko dokumentazioa osatzen den unetik aurrera.

2.– Merkataritza Zuzendaritzak sei hilabete baino lehen eman eta jakinaraziko du emakidaren ebazpena, laguntza-eskabide osoa (20.2 artikuluan ezarritakoaren araber) aurkeztu den egunetik aurrera.

Ezarritako eguna igaro eta ebazpen espresurik eman eta jakinarazi ez bada, pertsona edo entitate interesdunak eskabidea ezetsitzat jo ahal izango du, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 25.5 artikuluan aurreikusitakoaren araber, hargatik eragotzi gabe organo eskudunak ebazpen espresua emateko duen betebeharra.

3.– Eskatutako laguntza eman edo ukatzeko administrazio-ebazpenak entitate onuradunaren nortasuna jasoko du, emandako laguntzaren zenbatekoa finkatuko du berriaz, diruz lagundutako proiektu bakoitzerako agindu honetan ezarritakoaren araber, onartutako gastuarekin, eta onuradunak bete beharko dituen baldintzak, betebeharrak eta epeak zehaztuko ditu, edo, hala badagokio, laguntza ukatzeko arrazoiak. Horretaz gain, emandako laguntza de minimis-laguntza dela jasoko du, Batzordearen 1407/2013 (EB) Erregelamendua berriaz aipatuta, eta Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratu dela adieraziko du.

4.– Aipatu laguntzei aurre egin behar dien aurrekontuak ez badu kreditu egoki eta nahikorik lortu nahi den helbururako, laguntzak ukatu egingo dira administrazio-ebazpen bitartez. Era berean, laguntzak emateko kontsignatutako kreditua agortuz gero, merkataritzaren arloan eskudun den

Turismo eta Merkataritza Sailburuordetzaren titularrak administrazio-ebazpen bat emango du, gertaera horren berri emateko, eta bertan adieraziko du zer egunetan agortu den kreditua. Ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, eta ez da onartuko une horretatik aurrera aurkezten den laguntza-eskaerarik.

5.– Administrazioak laguntza ematen badu, hura ordaintzeko, pertsona edo entitate eskatzai-leak Ekonomia eta Ogasun Sailaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren Hirugarrenen Erregistroan erregistratuta egon beharko du, eta alta eman beharko du edo banku-datuak aldatu beharko ditu, baldin eta datu horiek ez badaude aipatutako erregistroan jasota.

Horretarako, eskaera egitean, alta eman beharko du edo aldatu egin beharko du, telematikoki, aurretik gehitutako informazioa (besteak beste, bankuko datuak), kasuan-kasuan, helbide honetan jasotako jarraibideen arabera: <https://www.euskadi.eus/hirugarrenak-argibideak>

Bankuaren datu horiek aktibo mantenduko dira, hala badagokio, laguntza osorik ordaindu arte.

6.– Agindu honetan jasotako dirulaguntzak onuradunei emateko eta ordaintzeko, ezinbestekoa izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek eta haren organismo autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen eremuan hasi eta oraindik izapidetzen ari den edozein itzulketa- edo zehapen-prozedura amaituta egotea. Prozedurak, amaieran, laguntza publikoak eskuratzeko desgaitasuna badakar, edo laguntza itzultzeko betebeharra ezartzen badu, eta dirua ez bada itzuli borondatez itzuli beharreko epean, baldintzapean emandako dirulaguntza indargabetu egingo da, onuradun izateko debekua izateagatik.

7.– Ebazpenak elektronikoki eta banaka jakinaraziko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalaren bitartez (<https://www.euskadi.eus/nirekarpeta/>), eta jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera izango dituzte jakinarazpen-ondorioak.

Osagarri gisa eta soilik informazio-ondoreekin, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak egindako jakinarazpenaren abisuak bidaliko dizkie interesdunei, eskabide-inprimakian adierazitako telefono mugikorretara SMSak edo helbide elektronikotara mezu elektronikoak bidaliz. Abisu horiek ez dute inola ere jakinarazpen-baliorik izango.

8.– Ebazpen horrek ez dio amaiera emango administrazio-bideari, eta, beraren aurka, pertsona eta entitate eskatzaileak gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango dio Turismo eta Merkataritzako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 122. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

Gora jotzeko errekurtsioa egoitza elektronikoan bakarrik izapidetu ahal izango da: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta/>.

22. artikulua.– Onuradunen betebeharrak.

1.– Agindu honetan araututako dirulaguntzen onuradunek indarrean dagoen araudia bete beharko dute, hargatik eragotzi gabe Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartua) 50.2 artikuluan eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 14. artikuluan ezarritako betebeharrak.

Halaber, betebeharrak hauek izango dituzte:

a) Emandako dirulaguntza onartzea. Dirulaguntza emateko ebazpenaren jakinarazpena jaso eta hamabost eguneko epean onuradunek dirulaguntzari berariaz eta idatziz uko egiten ez badiote, dirulaguntza onartu dela ulertuko da, eta ordaindu egingo da.

b) Laguntza eman zitzaion proiektua egin ezin bada, eskatutako espedienteari uko egin zaiola jakinaraztea, proiektua ez dela gauzatu ziurra denean, eta laguntza borondatez itzultzea, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onartutako Dirulaguntzen Lege Orokorraren Erregelamenduren 90. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 38. artikuluan ezarritakoaren arabera kalkulaturako berandutze-interesak ordainduta.

c) Laguntza zertarako eman den, xede horretarakoxe erabiltzea.

d) Onuradunak dirulaguntzaren xede izan diren ondasunen xedeari eutsi beharko dio, eta emakida-eskabidean aurreikusitako helburuari aplikatu beharko dizkio, gutxienez hiru urtez, proiektua gauzatzen denetik zenbatzen hasita, edo, bestela, proiektuaren bizitza baliagarria amaitu arte, bizitza hori laburragoa bada.

Horrek ez du eragotziko epe horretan zaharkituta geratu diren edo matxuratuta dauden instalazioak edo ekipoak ordeztzea, betiere jarduera ekonomikoa dagokion eremuan mantentzen bada aplikatzekoa den gutxieneko epean. Hori guztia, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 31.4 eta 31.5 artikuluetan ezarritakoaren arabera. Baldintza hori betetzen dela egiaztatzeko, laguntzak kudeatzen dituen organoaren irizpideari jarraituko zaio.

e) Jarduera egin izana justifikatzea, bai eta dirulaguntza emateko betekizunak eta baldintzak bete izana ere.

f) Dirulaguntzaren xede den proiektuari dagokionez, kontabilitate-sistema bereizi eta espezifikoa bat izatea, edo kontabilitate-kode egoki bat, proiektuarekin zerikusia duten transakzio guztiei dagokienez.

g) Kontabilitate-liburuak, izapidetutako erregistroak eta gainerako agiriak behar bezala egiaztatuta edukitzea onuradunari kasuan-kasuan aplikatu behar zaizkion merkataritzako eta sektoreko legediak eskatutako moduan. Dokumentuak formatu elektronikoa gordetzea, eragiketa egin eta bost urteko epean, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduren 132. artikuluen arabera. Erregelamendu hori 2018ko uztailaren 18koa da, Batasunaren aurrekontu orokorrari aplikatu dakizkiokkeen finantza-arauei buruzkoa, 966/2012 (EB, Euratom) Erregelamendua indargabetzen du, eta honako Erregelamendu hauek aldatzen ditu: 1296/2013 (EB), 1301/2013 (EB), 1303/2013 (EB), 1304/2013 (EB), 1309/2013 (EB), 1316/2013 (EB), 223/2014 (EB) eta 283/2014 (EB), baita 541/2014/EB Erabakia ere.

h) Deialdi honen kontura jasotako dirulaguntzak direla-eta, Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari euren eginkizunetan dihardutela eskatzen duten informazioa ematea.

i) Administrazio edo entitate publikoei helburu eta xede bererako laguntzak eskatu izana edo horiek jaso izana jakinaraztea organo emaileari, bai eskabidea aurkezteko unean, bai prozedura izapidetzen ari den bitartean.

j) Laguntza eman duen organoari deklaratzeko aurreko bi zerga-ekitaldietan eta aribidekoan jasotako *de minimis* laguntza guztiak.

k) Merkataritza Zuzendaritzari dirulaguntza emateko kontuan hartutako edozein gorabehera objektiboren zein subjektiboren aldaketa jakinaraztea.

l) Eskatzen zaien informazio osagarri guztia eman beharko diote Merkataritza Zuzendaritzari, hark egoki irizten dituen egiaztapen guztiak egin ditzan diruz lagundutako proiektuen garapenaren eta gauzatze-lanen inguruan.

m) Jasotako funtsak aplikatu direla egiaztatzen duten dokumentuak eta fakturak gordetzea, baita dokumentazio elektronikoa ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak horiek egiaztatzeke eta kontrolatzeko aukera izan dezan, gutxienez 5 urteko denbora-tartean, saldoa ordaintzen denetik aurrera.

n) Kontrol-organo eskudunek egindako egiaztapen-jarduketan ondorioz bidegabeki jasotako funtsak itzultzea, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen II. tituluan ezarritakoaren arabera.

o) Martxoaren 3ko 1/2022 Legean –Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 Legea bigarren aldiz aldatu zuen hartan– eta Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasun eragingarriko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan xedatutakoa betetzea, eta aipatutako 1/2022 Legeak administrazioarekin kontratuak egiten dituzten entitateei ezartzen dizkien betebeharrak bere gain hartzea.

p) Tartean diren administrazio publikoen artean datuak lagatzea onartzea, aplikatzekoa den Europako araudia betetzeko, bat etorriaz Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoarekin, irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren IV.B eranskinean ezarritako ereduari jarraituz.

q) Ez egotea Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 116. artikuluan ezarritako egoeraren batean.

r) Garraioaren arloko iraunkortasun ekonomikoko neurriei buruzko abuztuaren 1eko 14/2022 Errege Lege Dekretuan xedatutakoa betetzea, ikasteko beken eta laguntzen arloan, bai eta energia aurrezteko, efizientziarako eta gas naturalaren mendekotasun energetikoa murrizteko neurrien arloan ere.

2.– Gainera, onuradunek Europar Batasuneko Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa finantzatzeari buruzko estatu eta Europa mailako betebeharrak bete beharko dituzte. Horretarako, betebeharrak dituzte:

a) DNSH – Do Not Significant Harm Printzipioa (ingurumenari kalte nabarmenik ez eragiteko printzipioa) erabat betetzen dela bermatzea, honako hauek ezarritakoarekin bat: Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana; Kontseiluaren Beteazpen Erabakia, Espainiako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren ebaluazioa onartzeari buruzkoa (Council Implementing Decisión – CID); Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 (EB) Erregelamendua, 2021eko otsailaren 12koa, eta irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 5. artikulua (aginduak Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema eta hura garatzeko araudia eratzen ditu, proiektuen diseinuaren eta exekuzioaren fase guztietan eta jardura bakoitzerako banaka). Nolanahi ere, entitate onuradunek printzipio hori betetzen dela egiaztatzeke mekanismoak eta ezarpena ziurtatzeko neurri zuzentzaileak aurreikusiko dituzte, eta horren berri emango dute dirulaguntza justifikatzeko memorian.

Gainera, informazio-teknologiaren ekipoa erositik gero, horiek otsailaren 18ko 187/2011 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera energiarekin lotutako baldintzak betetzen dituztela ziurtatu beharko dute. Errege-dekretu horren bidez, zerbitzariarentzako eta datuen biltegietarako, edo konputagailu eta konputagailu-zerbitzari edo pantaila elektronikoentzako energiarekin lotutako produktuei aplikatzekoak diren diseinu ekologikoko baldintzak ezartzen dira. Erosketa horietan, Europako Batzordearen IKTetarako Jokabide Kodea erabat errespetatzen duten energetikoki efizienteak diren ekipoa erosten direla ziurtatzeko neurriak aktibatuko dira, eta ezarritako tresna elektriko eta elektronikoaren iraunkortasuna, konpontzeko, eguneratzeko eta berrerabiltzeko aukera handitzeko neurriak hartuko dira.

b) Interes-gatazkarik, iruzurrik eta ustelkeriarik ez dagoela bermatzea, bai eta dirulaguntzaren administrazio-emaileak onartutako Iruzuraren aurkako Neurrien Plana (2022ko apirilaren 13ko EHAA, 74. zk.; Jaurkitzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendararen apirilaren 6ko 40/2022 Ebazpenaren arabera) baldintzarik gabe eta inolako erreserbarik gabe onartzea ere. Plan horren xedapenak bete beharko dituzte erabat, autonomia-erkidegoko, estatuko eta Europako araudia zeharo errespetatuz, iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazka prebenitzeari, antzemateari eta zuzentzeari dagokienez, eta Europar Batasunaren finantza-interesen babesaz bertako erakundeek har ditzaketan erabakiekin bat.

c) Dirulaguntzak ematen dituen administrazioari jakinaraztea helburu bererako beste dirulaguntza edo laguntza batzuk jaso dituela estatuko edo nazioarteko beste edozein administrazio edo erakunde publikotatik, kostu beraren gaineko finantzaketa bikoitzik izan gabe.

d) Espainiako erakundeek, Europako Batzordeak, Iruzuraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoak, Europako Kontuen Auzitegiak eta Europako Fiskaltzak ezarritako kontrolak onartzea. Horretarako, organo horiei emango zaie dirulaguntzari buruz eskatutako informazio guztia, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 22.2.e) artikuluan ezarritakoaren arabera.

e) Entitateak bermatu behar du badakiela laguntza horren finantzaketa Europar Batasuneko SEMetik datorrela, eta, beraz, bere gain hartzen dituela Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamendutik (hau da, SEMa ezartzen duen erregelamendutik) eta finantzaketa horri aplikatu beharreko gainerako Europar Batasuneko arauetatik edo estatu-arauetatik eratorritako betebeharrak guztiak. Hori erantzukizunpeko adierazpen baten bidez egiaztatuta behar da.

f) Batzordeari, Iruzuraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoari, Kontuen Auzitegiari eta, hala dagokionean, Europako Fiskaltzari Finantza Erregelamenduko 129. artikuluan 1. apartatuak aitortzen dizkien eskubideak egikartzeko baimena ematea, eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planen sartutako erreformak eta inbertsio-proiektuak aplikatzeko neurrietarako ordaindutako funtsen azken hartzaile guztiak behartzea, edo aplikazioan esku hartzen duten gainerako pertsona edo entitate guztiak, eta berariaz baimena ematea Batzordeari, Iruzuraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoari, Kontuen Auzitegiari eta, hala dagokionean, Europako Fiskaltzari, Finantza Erregelamenduko 129. artikuluan 1. apartatuak aitortzen dizkien eskubideak egikartzeko eta antzeko betebeharrak ezartzeko funtsen azken hartzaile guztiei.

g) Jasotako funtsen aplikazioaren egiaztagiria eta dokumentu elektronikoak bost urtez zaintzea eta gordetzea saldoa ordaintzen denetik, edo hiru urtez, baldin eta finantzaketaren zenbatekoa 60.000 eurokoa edo txikiagoa bada, egiaztapen- eta kontrol-jarduerak egin ahal izan daitezen, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduaren 132. artikuluan eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 22.2.f) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

h) Beren identifikazio-datuak datu-base bakarrean sartzeko, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 22.2.d) artikuluan eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren kudeaketa-sistema eratzen duen irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 8. artikuluan adierazitakoaren arabera.

i) Diruz lagunduta egiten diren jarduketan fidagarritasunaren eta jarraipenaren erantzule izatea, une oro jakin ahal izateko jarduketa bakoitza zenbateraino bete den. Hirugarrenek egin beharreko jarduketan kasuan, mekanismoak ezartzea hirugarren horiek aurrekusi diren jarduketak aurrera eramaten laguntzen dutela ziurtatzeko eta –hala badagokio– behar diren suspertze-planaren adierazle, mugarri eta helburuen balioa zehazteko beharrezkoa den informazioa ematen dutela ziurtatzeko.

j) Tartean diren administrazio publikoen artean datuak lagatzea onartzea, aplikatzekoa den Europako araudia betetzeko, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoarekin eta funtsen azken hartzailearen identifikazioa arautzen duen irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 8. Artikulu osoarekin bat etorriz. Informazio horrek eskuragarri egon behar du irailaren 29ko HFP/1031/2021 Aginduaren 10. artikulua araberan, eta hori guztia Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduaren 22.2.d) artikulua garatzeko.

3.– Era berean, 23. artikuluan adierazitako informazio- eta publizitate-betebeharrak bete beharko dituzte.

23. artikulua.– Publizitatea eta informazioa.

1.– Laguntzen onuradunek publiko egin beharko dute diruz lagundutako jardueraren finantzaketaren izaera publikoa, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 18. artikuluko 4. apartatuan ezarritakoaren arabera.

2.– Dirulaguntza hauen entitate onuradunek finantzaketa horren jatorria aipatu behar dute, eta ikusgarritasuna eman behar diote. Horrez gain, honako hauek gehituko dituzte: Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren eta Eusko Jaurlaritzaren identifikazio grafikoa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren logoa, Batasunaren ikurra eta «Europar Batasunak finantzatua – Next Generation EU» jartzen duen finantzaketa-adierazpen egoki bat. Esteka honetan daude eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1221401>

Ikusgarritasun hori, bereziki, inbertsioek garatutako proiektuen informazio- eta komunikazio-neurri guztietan gauzatuko da (informazio-kartelak, plakak, argitalpen inprimatuak eta elektronikoak, ikus-entzunezko materiala, webguneak, prentsan txertatutako argitalpenak eta iragarkiak, ziurtagiriak, etab.).

3.– Hala badagokio, agindu hau betetzeko garatzen diren proiektu guztietan, ondo ikusteko moduan eta jendearentzat eskuragarri egongo den leku batean jarri beharko dira informazio-kartel, plaka, argitalpen inprimatu eta elektroniko, ikus-entzunezko material, webgune, prentsan txertatutako argitalpen eta iragarki, ziurtagiri eta abar guztiak, eta testua Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan idatzita egon beharko da.

Aurreko apartatuan aipatutako bereizgarri instituzionalak dirulaguntzaren xede diren proiektuak egiteko, informatzeko eta zabaltzeko erabiltzen diren materialetan bakarrik erabili ahal izango dira, eta ez dirulaguntzaren xede ez diren beste publizitate-helburu batzuetarako.

4.– Betebehar hori betetzen ez bada, itzulketa gauzatuko da, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 37.1.d) artikuluan eta hura garatzeko uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Erregelamenduaren 93. artikuluan ezarritakoaren arabera.

24. artikulua.– Laguntzak ordaintzea.

1.– Honela ordainduko dira laguntzak:

Emandako dirulaguntzaren % 50 emakida-ebazpena eman ondoren ordainduko da, 22.1.a) artikuluan aurreikusitako epea igarota, ukorik izan ez bada.

Gainerako zenbatekoa agindu honen 27. artikuluan xedatutakoaren arabera gastuen justifikazioa likidatu ondoren ordainduko da.

Ordainketa horiek egiteko, onuradunak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean eduki behar ditu.

2.– Inola ere ezin izango zaie ordainketa aurreraturik egin konkurtso-deklarazioa eskatu duten onuradunei, edozein prozeduratan kaudimengabetzat jo direnei edo konkurtsoan deklaraturik daudenei, salbu eta konkurtso horretan hitzarmen batek eraginkortasuna hartzen badu, esku-hartzeko judizialaren pean badaude edo uztailaren 9ko 22/2003 Konkurtso Legearen arabera desgaituak izan badira, konkurtsoa kalifikatzeko epaian ezarritako desgaitze-aldia amaitu gabe.

3.– Abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuaren 61.3 artikuluan arabera, onuradunek egiaztatu beharko dute ordainduta dituztela funts horiek kudeatzeko berariaz esleitutako kredituen kontura lehendik emandako beste edozein mailegu edo aurrerakinen itzulketa-betebeharrak. Merkataritza Zuzendaritzari dagokio baldintza horiek ordainketa egin aurretik betetzen direla egiaztatzea, eta, horretarako, onuradunaren erantzukizunpeko adierazpena eskatuko du, bestela egiaztatu ezin denean.

4.– 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 22.2.e) artikuluan eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduaren 129. artikuluan ezarritakoaren arabera, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko funtsak jasotzeko, ezinbestekoa izango da idatzizko konpromisoa aurkeztea, beharrezkoak diren eskubideak eta sarbideak emateko Batzordeari, Iruzuraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoari, Europako Kontu Auzitegiari, Europako Fiskaltzari eta agintari nazional eskudunei beren kontrol-eskumenak gauzatzea bermatzeko.

25. artikulua.– Uko egitea.

Onuradunek beren borondatez uko egin ahal izango diote dirulaguntzari.

Merkataritzako zuzendariak, ebazpen baten bidez, berariaz onartuko du uko-egite hori, eta, ordainketaren bat eginda baldin badago, itzultzeko betebeharra dagoela adieraziko du, sortutako berandutze-interesak barne; halaber, amaitutzat emango du prozedura, delako entitate horri dagokionez.

26. artikulua.– Inbertsioak gauzatzeko eta justifikatzeko epea.

1.– Emakida-ebazpenak epe bat ezarriko du inbertsioak gauzatu eta justifikatzeko, onuradunak laguntza-eskabidean aurkeztutako betearazpen-kronogramaren arabera.

2.– Gauzatzeko epea 2023ko urtarrilaren 1etik 2023ko irailaren 30era artekoa izango da, bi egun horiek barnean direla. Finantzetarako aurkeztutako proiektua egun horretan burutu beharko da.

3.– Egindako gastuen justifikazioa aurkezteko, hilabeteko epea ezartzen da, diruz lagundutako proiektuak amaitzen direnetik, eskabidean aurkeztutako kronogramaren arabera. Nolanahi ere, 2023ko urriaren 31 baino lehen justifikatu behar dira.

4.– Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 32. artikuluan ezarritakoaren arabera, Administrazioak, ofizioski edo interesdunek eskaturik, luza dezake ezarritako epea, manuren batek kontrakoa ez badio, komenigarritzat jotzen bada eta hirugarren batzuen eskubideei kalterik egiten ez bazaie. Epearen erdia izan daiteke luzapena, gehienez ere. Luzapen hori ez da inola ere joango 2023ko irailaren 30etik harago. Epea luzatzeko erabakia interesdunei jakinarazi behar zaie.

Edonola ere, interesdunek dagokion epemuga amaitu aurretik egin behar dute eskaera, eta epea luzatzeari buruzko erabakia ere epemuga amaitu aurretik hartu beharko da. Inoiz ez da luzatuko amaituta dagoen epe bat. Epeak luzatzeari edo hori ukatzeari buruzko erabakien kontra ezin daiteke errekurtsorik jarri, hargatik eragotzi gabe prozedura amaitzen duen ebazpenaren kontra dagokiona jartzeko aukera.

## 27. artikulua.– Laguntzen justifikazioa.

1.– Justifikaziora sartzea eta hura betetzea egoitza elektronikoaren bidez soilik egin ahalko da, honako helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta/>

2.– Finantzatutako proiektuak egin direla justifikatzeko agiriak justifikazioko kontuaren modalitatearen arabera egingo dira, gastuen egiaztagiria eta ordainagiria aurkeztuta, bai eta agindu honen 28. artikuluan jasotako dokumentazioa ere.

3.– 26.3 artikuluan ezarritako justifikazio-epea igaro eta hura aurkeztu ez bada, entitate onuradunari hamabost egun luzaezineko epea emango zaio justifikazioa aurkezteko. Ezarritako epean justifikaziorik aurkeztu ezean, baldintza hori bete gabe geratuko da, eta, ondorioz, ordaindutako dirulaguntza eta berandutze-interesak itzuli beharko dira.

4.– Dirulaguntza eman duen organoak, hura likidatzeko, honako hauek egiaztatuko ditu: dirulaguntzaren justifikazio egokia, laguntzaren xede diren proiektuak behar bezala gauzatu direla eta emakidaren helburua bete dela.

5.– Dokumentazioa egiaztatzean ikusten bada zuzendu daitezkeen akatsak daudela dirulaguntzaren entitate onuradunak aurkeztu dituen justifikazio-agirietan, erakunde onuradunari inguruabar hori jakinaraziko zaio, eta hamar eguneko epea emango zaio akatsak zuzentzeko.

6.– Dirulaguntzaren justifikazioan aurkeztutako gastu guztiak onartzen ez badira eta horrek dirulaguntza gutxitzea badakar, Merkataritzako zuzendariari dirulaguntzaren likidazioa proposatu baino lehen, hamabost eguneko entzunaldi-izapidea emango zaio entitate interesdunari, aurkeztutako dokumentazioa zuzen dezan, hala badagokio.

7.– Aipatutako alderdi guztiak egiaztatu ondoren, Merkataritzako zuzendariak dagokion likidazio-ebazpena emango du, teknikarien txostena kontuan hartuta.

8.– Europar Batasuneko eta Estatuko araudiak Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoari buruz ezarritako eskakizunetara ere egokituko da justifikazioa.

9.– Aurkezpen elektronikoak ez ditu onuradunak salbuesten jatorrizko gastu- eta ordainketa-egiaztagiria, auditoretza-txostenak edo bestelakoak gordetzetik, badaezpada jarraipenaren organo instruktore eta arduradunak edo, legez aurreikusitako kontrol-jarduerak egitean, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak, Estatuko Administrazioako Kontu Hartzailera Nagusiak, Kontuen Auzitegiak, Batzordeak, Iruzuraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoak, Europako Kontu Auzitegiak eta Europako Fiskaltzak, jasotako laguntzei dagokienez dituzten eginkizunak betez, gerora eskatzen badizkiete ere.

## 28. artikulua.– Justifikazioarekin batera aurkeztu beharreko agiriak.

Laguntzen justifikazioak, egindako proiektua edozein dela ere, justifikazioaren XIII. eranskinean jasotako inprimakia jaso behar du, elektronikoki sinatuta, eta honako dokumentazio hau, beti:

a) Fakturak edo merkataritzako trafiko juridikoan froga-balio bera duten dokumentuak edota administrazio-eraginkortasuna dutenak, gastuen zerrenda sailkatuan erantsita.

Fakturak proiektuaren betearazpen-epearen barruko data izango dute, eta soilik onartuko dira 500 euro edo gehiagokoak badira, BEZik gabe, eta diruz lagundu daitezkeen azalpenen deskribapena ondo identifikatuta badute; ez dira kodetutako kontzeptuak onartuko.



Ez da onartuko Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuaren 2022ko azaroaren 29ko Aginduaren bidez dagoeneko diruz lagundu diren gastuen fakturarik; agindu hori EHAAren 240. zenbakian argitaratua da, 2022ko abenduaren 19an, eta, haren bidez, oinarriak ezarri eta deialdi publikoa egiten da Euskal Autonomia Erkidegoko merkataritza modernizatzeko programaren laguntzetarako (Funts Teknologikoa), Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan (Europar Batasunak finantzatua-Next GenerationEU).

Laguntza horiei dagozkien faktura guztiek Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planarekin lotzen dituen eremu espezifiko bat hartuko dute barne.

b) Banku-kontuaren laburpen bat, dirulaguntzaren xedearekin lotutako oharrak jasotzen dituen.

c) Organo emaileak berrikusteko baimenik eman ez badu, onuradunak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiri eguneratua, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduaren 6. artikuluan xedatutakoaren arabera. Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren agindu hori Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan bai zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bai dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak betetzen direla egiaztatzeari buruzkoa da.

Entitate eskatzailea ondasun-erkidego edo sozietate zibil bat bada, apartatu honetan ezarritako baldintza betetzen dela egiaztatuko dute horietan parte hartzen duten partaide guztiek.

d) Inbertsioa egin dela egiaztatzen duten argazkiak edo agiriak.

e) Publizitateari eta informazioari buruzko 23. artikulua betetzen dela egiaztatzen duen agiria, eta dagokion justifikazioa (argazkiak, audioak eta abar).

f) Justifikazio-agiri osagarriak eskatu ahal izango dira egindako gastua justifikatzeko, bai eta estatuko edo Europako araudiaren arabera Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan eska daitezkeen beste edozein egiaztatzeagiri edo txosten ere.

29. artikulua.– Dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea.

1.– Dirulaguntza emateko kontuan hartutako inguruabarrak aldatzen badira, gerta liteke horren ondorioz emakida-ebazpena ere aldatzea.

2.– Emakida aldatzeko eskaera Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan egingo da (<https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-sede/eu/>).

3.– Honako hauek dira emakida-ebazpena aldatzea eragin dezaketen berriarazo inguruabarrak:

a) Eskabidea egin zen unean aurreikusi ezin izan ziren gerora sortutako arrazoiak, aurrez aurreikusi ezin zirenak.

b) Jarduera egokitu beharra, laguntza esleitu ondoren onartutako teknika-, osasun-, ingurumen-, hirigintza-, segurtasun- edo irisgarritasun-zehaztapenetara.

c) Diruz lagundutako zenbateko osoaren banakapena aldatzea gastu-kategoria desberdinetan, betiere aurrekontuari dagokionez posible bada, hasieran emandako zenbatekoa handitzea ez badakar eta behar bezala arrazoituta badago.

4.– Inola ere ezin izango da aldatu dirulaguntzaren helburua edo xedea, ez eta emandako laguntzarekin lortu nahi diren helburuak ere, eta ezin izango da aldatu jarduera, programa, proiektua edo jokabidea, ezta emakida-ebazpenean agertzen den dirulaguntzaren zenbatekoa handitu ere. Aldaketak ezingo die eragin, ezta ere, onuradunak proposatu edo eskainitako alderdiei, hain zuzen ere, dirulaguntza emateko arrazoi izan zirenei.

Luza daiteke proiektua gauzatzeko epea, horretarako arrazoiak egonez gero, eta horrek ez badio eragiten suspertze-planean proiektu honi jarritako helburuak betetzeari, ez eta hirugarrenen eskubideei ere.

5.– Edozein aldaketa egiteko, interesdunak alde aurretik eskatu beharko du. Aldaketa-eskaerak aurkezteko epea hasieran aurreikusitako gastuak gauzatzeko epea amaitu baino hamabost egun baliodun lehenago amaituko da, eta emakida-ebazpena eman zuen organoak berariaz onartu beharko du, interesdunari jakinarazita. Emakida-ebazpena eman zuen organoak hamar eguneko epean onarpenaren jakinarazpenik ematen ez badu, aldaketa ezetsizat joko da.

6.– Aurrekontu finantzarriaren elementuen ordez funtzionaltasun eta helburu baliokidea duten beste batzuk erabili ahal izateko, ez da emakida-ebazpena aldatzeko eskabiderik egin beharko, betiere ondoren zehazten diren baldintzak betetzen badira:

a) Soluzio teknologiko eta jasangarriak ezartzearekin lotutako gastuen kasuan, ordeztutakoek funtzio bera bete beharko dute proiektuaren barruan, eta ezaugarri teknikoak desberdinak izan ahalko dira.

b) Hornitzailea aldatuz gero, hasieran aurreikusitakoa beste batekin ordezkatu ahal izango da, betiere hasieran planteatutako konponbideari eusten bazaio.

c) Kasu guztietan, aintzat hartutako gastu-kategorian finantzatu daitekeen zenbatekoa eta emakida-ebazpenean jasotako zenbatekoa berdinak izan beharko dira.

Justifikazio-dokumentazioan behar bezala justifikatu beharko dira emakida-ebazpenean onartutako proiektuari dagokionez egindako ordezkapen guztiak.

7.– Baldin eta, emakida-ebazpena aldatzearen ondorioz, hasieran emandako laguntza gehiegizkoa bada, berehala hasiko da aurrez egindako ordainketa itzultzeko prozedura, eta horrekin batera, ordainketa egiten denetik itzulketa egitea adosten den egunera arte sortutako berandutze-interesak ere itzuli beharko dira, soberakin horren zenbatekoa oinarri hartuta.

30. artikulua.– Jarraipena, kontrola eta ebaluazioa.

1.– Agindu honetan araututako laguntzak emateko egintzan ezarritako baldintzak bete direla eta aurreikusitako helburuak lortu direla justifikatzeko, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorren 30. artikuluan eta hura garatzen duen Erregelamenduaren 72. eta 75. artikuluetan ezarritako prozedurak erabiliko dira, eta abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuaren 63. artikuluan aurreikusitako neurri bereziak aplikatuko dira, eta, hala badagokio, Europar Batasuneko araudi aplikagarria.

2.– Entitate onuradunek men egin behar diete administrazio emailearen egiaztapen-jarduketei, Kontu Hartzailera Nagusiari dagozkion finantza-kontrolako jarduketei eta Kontuen Auzitegiaren legedian aurreikusitako jarduketei, bai eta Batzordeak eta Europako Erkidegoetako Kontuen Auzitegiak, Iruzuraren aurkako Europako Bulegoak, Auditoretzako Bulego Nazionalak eta, hala dagokionean, Europako Fiskaltzak egiten dituztenei ere.

3.– Edonola ere, oinarriotan arautzen diren dirulaguntzak Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planerako ezarritako jarraipen, kontrol eta ebaluazioaren mende egongo dira, eta barneko araudian eta Europar Batasunekoan EBren Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoarako informazio eta publikotasunari, kontrolari, egiaztapenari, jarraipenari, ebaluazioari eta gainerakoari buruz ezarritako betebeharrak espezifikokoak izango dituzte, nahitaez aplikatzekoak badira.

4.– Bereziki, administrazio emaileek datu-kategoria harmonizatuak bilduko dituzte, formatu elektronikoa, funtsen erabilera ikuskatu eta kontrolatzeko, Suspertze, Eraldatze eta Erresiliencia Planaren esparruan erreformak eta inbertsio-proiektuak gauzatzeko neurriei dagokienez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduaren 22.2.d) artikuluan zehaztutakoarekin bat etorritik.

5.– Entitate onuradunek finantzaketari buruzko egiaztapenak eta gainerako agiriak formatu elektronikoa gorde behar dituzte saldoa ordaindu eta bost urte igaro arte, edo hiru urte igaro arte, dirulaguntzaren zenbatekoa 60.000 eurotik beherakoa denean, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduaren 132. artikuluan aurreikusitako moduan (Finantza Erregelamendua).

6.– Onuradunek konpromisoa hartzen dute ikuskapenak eta egiaztapenak errazteko, halakorik egiten bada behintzat. Egiaztapen eta ikuskapen horiek egitearen aurka agertzea laguntza itzultzeko arrazoi izan daiteke, dagokion zehapen-prozedura izapidetzearen kalterik gabe.

7.– Laguntzen berri emateko eta kontrolatzeko, informazioa lagako da dirulaguntza horiek Europako funtsen sistemen bidez kudeatzeko eta kontrolatzeko ezarritako sistemen artean.

8.– Dirulaguntza ematen duen organoak neurriak hartuko ditu iruzurra eta ustelkeria prebenitzeko, detektatzeko, jakinarazteko eta zuzentzeko eta interes-gatazkari eta finantzaketa bikoitzari aurrea hartzeko.

31. artikulua.– Dirua itzultzeko arrazoiak.

1.– Kasu hauetan hartutako diru kopuruak itzuli beharko dira, baita dirulaguntza ordaindu zeneatik itzuli behar dela erabakitzen den egunera arte edo zordunak itzulketa ordaintzen duen egunera arte –data hori lehenagokoa bada– sortutako berandutze-interesak ere:

a) Justifikatzeko betebeharra ez betetzea, ez justifikatzea, behar bezala ez justifikatzea edo ezarritako epetik kanpo justifikatzea.

b) Onuradunak emandako eta laguntza emateko oinarritzat hartutako datuak faltsutzea, datu horiek zehaztugabeak izatea edo isilean gordetzea, edo laguntza ematea eragotziko zuketenak ezkutetzea.

c) Ez betetzea dirulaguntza emateko arrazoi izan zen helburua.

d) Emakida-ebazpenean onuradunei ezarritako baldintzak ez betetzea.

e) Agindu honen 23. artikuluan jasotako zabalkunde-neurriak hartzeko betebeharra ez betetzea.

f) Ez betetzea Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37.1 artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Errege Dekretuaren 53 artikuluan aurreikusitako betebeharrak.

g) Laguntzaren entitate onuradunek ez betetzea DNSH printzipioari lotutako baldintzak (ekonomia zirkularraren printzipioak eta ingurumenen eragin negatibo esanguratsuak saihestea).

h) Ikuskatze-lana ez erraztea.

2.– Aurreko apartatuan ezarritakoari begira, izan daitezkeen ez-betetzeak mailakatzeko irizpide hauek ezartzen dira:

a) Erabateko ez-betetzea: finantza daitezkeen inbertsioa ehuneko 60an baino gutxiagoan egitea.

Erabateko ez-betetzea gertatuz gero, laguntzaren ordainketa aurreratua itzuli beharko da, laguntza jaso denetik itzultzea erabakitzen den arteko berandutze-interesak eta guzti.

b) Ez-betetze partziala: finantza daitekeen inbertsioa ehuneko 60an edo gehiagoan egitea.

Ez-betetze partzialak laguntzaren ordainketa aurreratua itzultzea eta berandutze-interesak ordaintzea ekarriko du, egin ez den edo justifikatu ez den inbertsio zatiari dagokionez.

Aurreko ehunekoak kalkulatzeko, egin gabeko inbertsiotzat hauek hartuko dira: agiri bidez egiaztatuta ez dagoena, finantzarriak ez diren kontzeptuak egiaztatzen dituen, emakida-ebazpenaren partiden banakatzea betetzen ez duena eta fakturatu edo ordaindu ez dena.

32. artikulua.– Ez-betetzeengatik dirua itzultzeko prozedura.

1.– Enpresa onuraduna aurreko artikuluko kasuetako batean jausiz gero, Merkataritza Zuzendaritzak erabakiko du dirulaguntzak itzultzeko prozedura hastea. Prozedura horretan, prozedura hasteko arrazoia, bete ez diren betebeharrak eta prozedurak eragiten dion laguntzaren zenbatekoa adierazi behar dira. Itzulketa-prozeduraren hasieraren jakinarazpena jaso ondoren, interesdunak egokitzat jotzen dituen alegazioak eta agiriak aurkeztu ahal izango ditu, hamabost egun balioduneko epean, jakinarazpen hori egiten denetik zenbatzen hasita.

2.– Merkataritza Zuzendaritzak, itzulketa-ebazpen baten bidez, dirulaguntza guztia edo haren zati bat jasotzeko eskubidea galdu dela adieraziko du, eta, hala badagokio, jasotako zenbatekoak itzuli behar zaizkiola eta dagozkien berandutze-interesak ordaindu Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari, atzemandako ez-betetzearen neurriaren proportzioan, bat etorri Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testuategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean ezarritakoarekin. Zenbateko horiek diru-sarrera publikotzat hartuko dira, dagozkien legezko ondoreetarako. Hasteko erabakia hartzen denetik hamabi hilabete igaro baino lehen jakinarazi behar zaio ebazpena interesdunari.

3.– Erreklamaturako zenbatekoak borondatezko epean itzultzen ez badira, premiamendu-bidez kobratuko dira, indarrean dagoen araudiaren arabera.

4.– Jasotako zenbatekoak itzuli behar dira, halaber, mugarriak, helburuak edo egutegia betetzen ez direnean, interes-gatazken adierazpenak izaten direnean edo SEEP-NextGenerationEU arautegiarekin lotutako beste edozein alderdi betetzen ez denean, 2023ko Estatuko Aurrekontu Orokorren abenduaren 23ko 31/2022 Legearen 7. artikulua zuzendutako arauan eta Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana gauzatzeko premia neurriak onartzen dituen abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuaren 37.4 artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamendua ere kontuan hartu behar da, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duena.

33. artikulua.– Iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak izateko arriskua prebenitzea.

1.– Baldintzak betetzen direla egiaztatzeko prozesuetan parte hartzen duten pertsonak adieraziko dute osorik eta erreserbarik gabe ezagutzen eta onartzen dituztela Gobernu Kontseiluaren 2022ko martxoaren 29ko Erabakiaren bidez onartutako «Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko eskatzen diren iruzurraren aurkako borrokari, interes-gatazkei, finantzaketa bikoitzari eta estatu-laguntzei buruzko betekizunak eta ingurumenari kalte nabarmenik ez egitekoak betetzeko neurrien plan»aren baldintzak.

Hauek ezagutu eta onartu behar dute, betiere, iruzurraren aurkako neurrien plana: dirulaguntza emateko eskumena duen organoaren arduradunak, dirulaguntzaren oinarriak edo deialdia idazten dituzten langileek, bai eta eskaerak ebaluatzen dituzten aditu eta batzordekideek ere, tartean direla jarduera horietan Administrazioari laguntza eta aholkuak ematen dizkieten entitate pribatuetako pertsona fisiko guztiak.

2.– Urtarrilaren 24ko HFP/55/2023 Aginduan adierazitako ondorioetarako, agindu horretan ezarritako prozedurak aplikatuko dira.

Gainera, agindu hori betetzeko, dirulaguntzak emateko organo eskudunak eta eskaerak aztertzeko kide anitzeko organoetako kideek interes-gatazkarik ez dagoelako adierazpena sinatu behar dute, agindu horretan bereziki arautua, eskabideak aztertzeko eta erabakia hartzeko fasean. Eragiketaren arduradunak, gainera, HFP/55/2023 Aginduaren 4. artikuluan xedatutakoaren arabera bete behar du interes-gatazka izan daitekeena egiaztatzeko prozesua. Prozesu horretan bandera beltz bat edo batzuk detektatzen badira, HFP/55/2023 Aginduaren 7. artikuluan xedatutako prozedurari jarraitu behar diote. Horretarako, eskatzaileei benetako titulartasunari buruzko informazioa bost egun baliodun igaro baino lehen aurkezteko eskatu behar diete, eta, epe horretan aurkeztu ezean, prozeduratik kanpo utziko dituzte.

3.– Aurreko apartatueta aipatutako pertsonen Interes-gatazkarik Ezaren Adierazpena ere beteko dute, oinarri hauen VI. eranskinean jasotako ereduarekin bat etorritz, hala egin behar dela ezartzen baita Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduko 61.3 artikuluan (Finantza Erregelamendua) eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeko 23. artikuluan.

4.– Prozeduraren batean interes-gatazkek eragiteko arriskua dakarren kausaren batean dauden agintariek eta langileek ez dute esku hartuko dena delako prozedura horretan. Norbaitek uste badu interes-gatazkaren bat egon daitekeela, hierarkian gorago dagoenari jakinaraziko dio, idatziz; zerbitzu juridikoek txostena egingo dute, eta hartu beharreko erabakia hartuko da. Horrek ez du eragozten HFP/55/2023 Aginduan ezarritako kasu zehatzetarako ezartzen den prozedura berezia betetzea.

5.– Kontrol Ekonomikoko Bulegoak, bere kabuz edo Estatuko Administrazioaren Kontu Hartzailetza Nagusiarekin lankidetzan arituz (III. maila), auditoria espezifikoak egin ditzake interes-gatazkek prebenitzeko, atzemateko eta zuzentzeko neurri egokirik ote dagoen ikusteko.

6.– Behin interes-gatazka bat hautematen denean, kasu bakoitzean aplikatzekoak diren legezko arauen eta barne-erregelamenduen araberrako neurriak hartuko dira. Era berean, edozein kasutan, interes-gatazkako egoera argitaratu beharko da gardentasun-printzipioa betetzeko.

34. artikulua.– Emandako laguntzak argitara ematea.

1.– Entitate eskatzaileei dirulaguntzak emateko ebazpenak banan-banan jakinarazteaz gain, entitate onuradunen zerrenda eta emandako dirulaguntzen zenbatekoa argitaratuko dira Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren (Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen dekretua) 49.2 artikuluan xedatutakoari jarraituz.

2.– Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 8.1.c) artikuluan aurreikusitakoaren arabera, emandako dirulaguntzak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren gardentasun-orrian argitaratuko dira, zenbatekoa, helburua edo xedea eta onuradunak adierazita.

35. artikulua.– Datu pertsonalak babestea.

Datu pertsonalen tratamendu guztiak beteko dituzte datu pertsonalen babesari buruzko araudian xedatutako eskakizunak, 2016/679 Erregelamendua (EB), Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokionez pertsona fisikoen babesari buruzkoa, eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa.

2023ko martxoaren 27a, astelehena

Datu pertsonalak Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saileko Merkataritza Zuzendaritzaren ardurapeko «Merkataritza-arloko laguntzak eta dirulaguntzak» izeneko tratamendu-jardueraren parte izango dira. Jarduera horren helburua da «Turismo, Kontsumo eta Merkataritza Sailak iragarritako merkataritza-arloko laguntzak eta dirulaguntzak kudeatzea eta kontrolatzea».

XEDAPEN GEHIGARRIA.– Bakarra. Aplikatu behar den araubide juridikoa.

Oinarrietan aurreikusi gabeko orotarako, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legea (urriaren 1eko 39/2015 Legea) eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legea (urriaren 1eko 40/2015 Legea) aplikatuko dira.

Halaber, laguntza horiei aplikagarriak zaizkie Kontseiluaren 2020/2094 (EB) Erregelamendua, 2020ko abenduaren 14koa, COVID-19aren krisiaren ondorengo susperraldian laguntzeko Europar Batasunaren Suspertze Tresna ezartzen duena, eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 (EB) Erregelamendua, 2021eko otsailaren 12koa, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duena, bai eta Europar Batasunak gaiari buruz eta horiek garatzeko edo transposizionatzeko estatuko gainerako arauak ere.

#### AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

#### AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, berraztertze errekurtsoa aurkez dakioko Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuari, hilabeteko epean; bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hileko epean. Bi kasuetan, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko dira epeak.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko martxoaren 21a.

Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburua,  
JAVIER HURTADO DOMÍNGUEZ.

2023ko martxoaren 27a, astelehena

## I. ERANSKINA

MERKATARITZA MODERNIZATZEKO LAGUNTZAK, SUSPERTZE, ERALDATZE ETA  
ERRESILIENTZIA PLANAREN ESPARRUAN – EUROPAR BATASUNAK FINANTZATUA – NEXT  
GENERATION EU

(FUNTS TEKNOLOGIKOAREN PROGRAMA)

(Erref.: 1221402)

ESKABIDEA AURKEZTEA

ESKABIDE-EREDUA

## 1.- ESKATZAILEA

Titularra:	
Ordezkarria:	
Instrukzio-organo honi zuzendua: Merkataritza Zuzendaritza	

## 2.- ESKATZAILEAREN DATUAK

Eskatzailea		
Identifikazio-agiria:		
Zenbakia:		
Pertsona juridikoa bada:		
Entitatearen izena:		
Pertsona fisikoa bada:		
Izena:		
1. abizena:		
2. abizena:		
Nortasun juridikorik gabeko entitateen kasuan (ondasun-erkidegoak eta sozietate zibilak)		
Entitatearen izena:		
Sexua:	Gizona <input type="checkbox"/>	Emakumea <input type="checkbox"/>

2023ko martxoaren 27a, astelehena

Ordezkarria		
Identifikazio-agiria		
Zenbakia		
Pertsona juridikoa bada:		
Entitatearen izena:		
Pertsona fisikoa bada:		
Izena:		
1. abizena:		
2. abizena:		
Sexua:	Gizona <input type="checkbox"/>	Emakumea <input type="checkbox"/>

## 3.- PERTSONA EDO ENTITATE ESKATZAILEAREN DATUAK

Laguntza eskatzen duen pertsona edo entitatea					
ETEa <input type="checkbox"/>		Elkartea, federazioa edo konfederazioa <input type="checkbox"/>			
ETE-en kasuan					
Enpresa mota:					
Autonomia <input type="checkbox"/>		Elkartua eta/edo lotua <input type="checkbox"/>			
Enpresa elkartua eta/edo lotua bada, honako hauek dira enpresa elkartuen eta/edo lotuen datuak:					
Enpresa	IFK	Parte-hartzea (%)	Langile kopurua	2021eko balantze orokorra	2021eko negozio-bolumena
(Errepikatu behar den guztietan)					
Ondorioz, enpresa kategoria honetan sartzen da:					
Mikroenpresa <input type="checkbox"/>		Enpresa txikia <input type="checkbox"/>		Enpresa ertaina <input type="checkbox"/>	
Nortasun juridikorik gabeko elkartea al da?			Bai <input type="checkbox"/>	Ez <input type="checkbox"/>	



2023ko martxoaren 27a, astelehena

Nortasun juridikorik gabeko elkarte bada:

Ondasun-erkidegoa Sozietate zibila 

Identifikazio-agiria	Zenbakia	Izena	Lehen abizena	Bigarren abizena	Sexua	Partaidetza-ehunekoa

Ondasun-erkidegoaren edo sozietate zibilaren kasuan, parte-hartzaile guztien datuak bete behar dira, deialdiaren eskakizunak betetzen direla egiaztatzeko.

(Errepikatu behar den guztietan)

Elkartearen ordezkaria:

EJSN nagusia:

Enpresak noiz eman zuen alta EJSNan:

Bazkide kopurua

Gizonak:

Emakumeak:

Bazkideak, guztira:

Zenbat langile, guztira:

Gizonak:

Emakumeak:

Langileak, guztira:

Webgunea:

Zenbat establezimendu ditu merkataritza-enpresak?

 Bat Bat baino gehiago Beste bat \_\_\_\_\_

Merkataritza-establezimendu bat baino gehiago izanez gero

Establezimendu-aren izena	Identifikazio-zenbakia	Kokapena	Inbertsioa edo inbertsioaren zati bat establezimendu honetan egiten al da?

2023ko martxoaren 27a, astelehena

Elkarteen kasuan		
Batzorde, korporazio edo gobernu-organoko kideen kopurua		
Gizonak:	Emakumeak:	Kideak guztira:
Zenbat langile, guztira:		
Gizonak:	Emakumeak:	Langileak, guztira:
Webgunea:		

## 4.- ESKATZAILEAREN EGOITZA SOZIALA

Pertsona edo entitate eskatzailearen egoitza soziala		
Helbidea (kalea):		
Zenbakia:	Solairua:	Aldea:
Udalerria:	PK:	
Lurralde historikoa:		

Legezko ordezkaria		
Identifikazio-agiria:		
Zenbakia:		
Izena:		
1. abizena:		
2. abizena:		
Sexua:	Gizona <input type="checkbox"/>	Emakumea <input type="checkbox"/>

Harremanetarako pertsona		
Izena:		
1. abizena:		
2. abizena:		
Sexua:	Gizona <input type="checkbox"/>	Emakumea <input type="checkbox"/>
Helbide elektronikoa:		
Telefono mugikorra:		

## 5.- INBERTSIOARI BURUZKO DATUAK

Inbertsioaren kokapena			
Laguntzaren xede den inbertsioaren kokapenari buruzko datuak			
Inbertsioa merkataritza-enpresa mailan egiten da?      Bai <input type="checkbox"/> Ez <input type="checkbox"/>			
Desberdinak al dira inbertsioaren kokapena eta titularraren egoitza soziala? Bai <input type="checkbox"/> Ez <input type="checkbox"/>			
Inbertsioa merkataritza-entresaren establezimendu zehatzen batean kokatzen da? Bai <input type="checkbox"/> Ez <input type="checkbox"/>			
Baiezkoa bada:			
	Establezimenduaren izena	Identifikazio- zenbakia	Kokapena

Proiektuak gauzatzea eta kronograma
<p>Proiektua:</p> <p>Gastuaren kategoria: Eraldaketa digitala / Salmenta-puntuaren eraldaketa / Jasangarritasuna eta ekonomia zirkularra / Hornidura-katea eta trazabilitatea / Diruz lagundu daitezkeen beste gastu batzuk</p> <p>Deskribapena:</p> <p>Hasiera-eguna:</p> <p>Amaiera-eguna:</p>

Justifikazio-txosten ekonomikoa									
Aurrekontuak / Proformako fakturak / Fakturak									
Data	Zenbakia	Fakturaren kontzeptua	Ekintzaren deskribapena	Hornitzailea	Zerga-oinarria*	BEZ	Guztizko zenbatekoa	Ordaindua Bai/Ez	Ordainketa -eguna

\* BEZik gabeko zenbatekoa.

PDF-a erantsi

Aurrekontuak, proformako fakturak edo fakturak erantsi behar dira, non argi eta garbi zehaztuko baitira dirulaguntzaren xede diren kontzeptuak eta inbertsioak.

PDF bakar bat erantsi behar da, non jasoko baitira faktura eta ordainagiri guztiak ordenatuta.

## 6.– JAKINARAZPENETARAKO DATUAK

Jakinarazpenen hartzailea	
Espedientea izapidetzen ari den bitartean, administrazioak honi bidaliko dizkio jakinarazpenak:	
Izena:	
1. abizena:	
2. abizena:	
Komunikaziorako hizkuntza:	Euskara <input type="checkbox"/> Gaztelania <input type="checkbox"/>

Jakinarazpen eta komunikazioetarako kanala	
Telematikoa: «Nire karpeta» ataleko jakinarazpenen eta komunikazioen postontzira bidaliko dira jakinarazpenak eta komunikazioak. Han sartzeko, ezinbestekoa da identifikazio elektronikoko bitarteko bat erabiltzea.	
10 egun naturaleko epean jakinarazpen elektronikoa bat eskuratzen ez baduzu, ulertuko da ez duzula onartu; tramitea egintzat joko da eta Administrazioak aurrera jarraituko du prozedurarekin.	
Jakinarazpen- eta komunikazio-abisuak jasotzeko datuak	
Helbide elektronikoa:	

2023ko martxoaren 27a, astelehena

Telefono mugikorra:	
Datuak erabiltzeko baimena	
<input type="checkbox"/>	Komunikazio eta abisuetarako nire datuak, oro har, Eusko Jaurlaritzako sailekin eta organismoekin ditudan harremanetan erabiltzea nahi dut.
<input type="checkbox"/>	Komunikazio eta abisuetarako nire datuak eskusiboki espediente hau kudeatzeko erabiltzea nahi dut.

## 7.- OINARRIZKO DATUAK

Laguntza eskatu duen entitatearen datu fiskalak zer lurralde historikotan dauden:		
Araba <input type="checkbox"/>	Bizkaia <input type="checkbox"/>	Gipuzkoa <input type="checkbox"/>

Hirugarrenen altari buruzko datuak
Pertsona edo entitate eskatzaileak erregistratuta egon beharko du Ekonomia eta Ogasun Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoko Hirugarrenen Erregistroan. Alta eman dezake edo aurretik gehitutako informazioa aldatu telematikoki, helbide honetan jasotako jarraibideen arabera: <a href="https://www.euskadi.eus/web01-s2oga/eu/contenidos/informacion/regtelter_infor/eu_rtt/index.shtml">https://www.euskadi.eus/web01-s2oga/eu/contenidos/informacion/regtelter_infor/eu_rtt/index.shtml</a>

Datuen babesari buruzko oinarrizko informazioa
Eskabidean jasotako datu pertsonalak «Merkataritza-arloko laguntzak eta dirulaguntzak» izeneko tratamendu-jardueran sartu eta tratatuko dira.
Arduraduna Merkataritza Zuzendaritza, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila.
Xedea Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak iragartzen dituen merkataritzaren arloko laguntzak eta dirulaguntzak kudeatu eta kontrolatzea.
Legitimazioa: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean misio bat egiteko edo tratamenduaren arduradunari aitortzen zaizkion ahalorde publikoak egikartzeko.</li> <li>• 1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.</li> <li>• 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.</li> <li>• 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.</li> </ul>

- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa.
- 36/2020 Errege Lege Dekretua, abenduaren 30ekoa, zeinaren bidez presako neurriak onesten baitira Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana gauzatzeko.

**Hartzaileak:**

- Ogasun publikoa eta zerga administrazioa
- Interesdun legitimoak
- Europar Batasuneko organoak
- Espainiako Gobernuko organoak
- Euskal Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk

**Eskubideak**

Eskubidea duzu datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezerezteko, bai eta informazio gehigarrian adierazitako beste eskubide batzuk ere.

**Informazio gehigarria**

Gure web-orrian ikus dezakezu datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatza (<https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/076200-cap2-eu.shtml>)

**Araudia:**

- Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra ([eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES](http://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES))
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa ([www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-16673](http://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-16673))

Erantzukizunpeko adierazpena	
A) Egoitzari dagokionez:	
<input type="checkbox"/> Laguntza eskatzen duen entitatea EAEn kokatuta dago.	
B) Laguntza jaso duen pertsonaren edo entitatearen izaerari dagokionez:	
<input type="checkbox"/> Pertsona edo entitatea ez dago Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra onuradun izateko 13. artikulua 2. eta 3. apartatuetan ezartzen dituen debeku-egoeretan.	
<input type="checkbox"/> Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 13.3 bis artikuluan aurreikusitakoaren arabera, eta Merkataritza Eragiketetan Berankortasunaren Aurkako Neurriak Ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legearen aplikazio-eremuan sartuta egonik, enpresak galdu-irabazien kontu laburtuak aurkez ditzake eta Merkataritza Eragiketetan Berankortasunaren Aurkako Neurriak Ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitako ordainketa-epeak betetzen ditu.	
<p>* Soilik aurkeztu beharko du galdu-irabazien kontu laburtua aurkez dezakeen sozietateak, kontabilitate-araudiaren arabera, eta 30.000 eurotik gorako laguntza eskatzen badu.</p> <input type="checkbox"/> Ez dago berreskuratze-agindu baten menpe, Europako Batzordeak aurretiaz erabaki badu laguntza bat legez kanpoko eta merkatu erkidearekin bateraezina dela.	
ETE-en kasuan	
<input type="checkbox"/> Enpresa izanez gero, ETE gisa kalifikatua izateko behar diren baldintzak betetzen ditu, honako betekizun hauek betetzen baititu elkarren segidako bi zerga-ekitalditan:	
<ul style="list-style-type: none"> <li>● Mikroenpresa: hamar langile baino gutxiago, eta urteko negozio-bolumena edo balantze orokorra 2 milioi eurotik gorakoa ez izatea.</li> <li>● Enpresa txikia: 50 langile baino gutxiago, eta negozio-bolumena edo urteko balantze orokorra hamar milioi eurotik gorakoa ez izatea.</li> <li>● Enpresa ertaina: 250 langile baino gutxiago, eta urteko negozio-bolumena ez izatea 50 milioi eurotik gorakoa edota balantze orokorra ez izatea 43 milioi eurotik gorakoa.</li> </ul>	
<input type="checkbox"/> Jarduera bakarra egiten duen enpresa izanez gero, jarduera hori 2009ko Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionalaren (EJSN-2009) 45., 46. edo 47. kodeetan jasotako jardueri dagokie.	
<input type="checkbox"/> Merkataritza-jarduerak eta izaera hori ez duten beste jarduera batzuk aldi berean egiten dituen enpresa izanez gero, egindako jarduera nagusia 2009ko Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionalaren (EJSN-2009) 45., 46. edo 47. kodeetako bat izatea, fakturazio-ehunekoaren arabera.	
EJSN kodea (sartu merkataritza-enpresak dituen EJSN guztiak)	2022ko ekitaldiko fakturazioa, merkataritza-enpresaren EJSN bakoitzaren arabera


(Nahi bestetan errepikatu)

\* Gainera, elkartutako edo lotutako enpresa bada, EJSNei eta fakturazioari buruzko datu guztiak sartu behar dira, partaidetzaren ehunekoa kontuan hartuta.

Ez ditu armak ekoizten, merkaturatzen edo finantzatzen, Euskal Autonomia Erkidegoaren Herrialde Pobretuekiko Justizia eta Elkartasun Gutunaren abenduaren 28ko 14/2007 Legeak xedatutakoa betez.

Ez da krisian dagoen enpresatzat hartzen, 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamenduaren 2.18 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Ez dauka dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzea eragozten dion zehapen penal edo administratibo irmorik, ez eta horretarako gaitasuna kentzen dion legezko debekurik ere.

Ez dauka inolako itzultze- edo zehatze-prozedurarik abian Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo haren organismo autonomoek emandako izaera bereko dirulaguntzen esparruan.

Honako itzulketa- edo zehapen-prozedura hauetan sartuta dago eta Merkataritza Zuzendaritzari horiei buruzko ebazpenen berri emango dio.

Prozedurak:

Hasiera-data	Administrazioa/ Organismoa	Sail izapidegilea	Espediente- zenbakia	Zenbatekoa

(Errepikatu behar den guztietan)

C) Bestelako laguntzei dagokienez:

Ez du eskabiderik aurkeztu edo laguntzarik lortu inbertsio honetarako erakunde publiko zein pribatuetatik, gaur arte: (ez bada betetzen, ulertuko da ez duela beste laguntzarik eskatu).

Laguntza-eskabide honez gain, inbertsio honetarako eskabidea aurkeztu du edo laguntza eskuratu du erakunde publiko edo pribatu hauetan, gaur arte:

Bestelako laguntzak:

Eskaera- urtea	Erakundea	Programa	Laguntza mota	Jarduera	Eskatutako zenbatekoa	Emandako dirulaguntza

Errepikatu behar den guztietan.

Azken hiru urteetan ez du jaso Europar Batasuneko zuzentzaruek ezarritako de minimis arauari (1) lotutako laguntza edo dirulaguntzarik.



Azken hiru urteetan, aurtengoa barne hartuta, Europar Batasuneko zuzentzauek ezarritako *de minimis* arauari (1) lotutako laguntza edo dirulaguntza hauek jaso ditu.

*De minimis* laguntza:

Eskaera-urtea	Erakundea	Programa	Laguntza mota	Jarduera	Eskatutako zenbatekoa	Emandako dirulaguntza

(Errepikatu behar den guztietan)

(1) *De minimis* arauaren arabera, *de minimis* kontzeptupean enpresa batek gehienez 200.000 euro jaso ditzake laguntza ezberdinetatik hiru urtean.

Halaber, konpromisoa hartzen du erakunde publikoetan zein pribatuetan inbertsio honetarako eskatzen edo lortzen dituen laguntza guztiak ezagutarazteko.

D) Emakumeen eta gizonen berdintasunari dagokionez:

Ez dago zigortuta dirulaguntza eta laguntza publikoen onuradun izateko debekuarekin, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 24.2 artikulua arabera.

Betetzen du Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirakomartxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan xedatutakoa.

Konpromisoa hartzen du Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 2.4 artikulua Administrazioarekin laguntzak kontratatzen, hitzartzen edo handik laguntzak jasotzen dituzten entitateei ezarritako betebeharrak bere gain hartzeko. Hauek dira betebeharrak horiek: tratu-berdintasunaren, aukera-berdintasunaren eta langileen aniztasunarekiko eta desberdintasunarekiko errespetuaren printzipioak betez jardutea; estatistika eta azterketak egokitzea; edozein motatako hizkuntzaren erabilera sexistarik ez egitea inongo euskarritan, eta zuzendaritza-organoetan eta kide anitzeko organoetan gaitasun, prestakuntza eta ahalmen egokia duten emakume eta gizonen presentzia orekatua edukitzea.

Ez da administrazio-zehapenik edo zehapen penalik betetzen ari, sexu-bereizkeria egiteagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.5 artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Ez dago behartuta berdintasun-plan bat indarrean izatera, Estatuko araudiaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.5 artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Berdintasun-plana indarrean dauka, Estatuko araudiaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.5 artikuluan xedatutakoari jarraituz.

E) Ingurumenari dagokionez:

Ez dago Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 116. artikuluan ezarritako egoeraren batean.

F) Eskabideko datuei dagokienez:

Agindu honetan ezarritako baldintzak betetzen ditut, bai eta aplikagarri den estatu-araudia eta Europar Batasuneko ere (bereziki, lehia, kontratazio eta obren eta horniduren adjudikazioaren eta ingurumenaren arloan), eta hitz ematen dut proiekturako behar diren lizentzia eta baimen guztiak aurkeztuko ditudala horiek jasotzean.

Egiazkoak eta ondo osatuak dira eskabide honetako datu guztiak, baita aurkezten dudak dokumentazioa ere, eta nire gain hartzen dut dagokidan erantzukizuna (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.7 artikulua).

Erantzukizunpeko adierazpen batean edo komunikazio batean jasotzen den datu edo informazioen bat zehaztasunik gabea edo faltsua bada edo aurkeztu ez bada, edo administrazio eskudunari ez bazaio aurkezten erantzukizunpeko adierazpena, edo deklaratzeko dena betetzen dela egiaztatzeko eskatzen den dokumentazioa, edo komunikazioa, ezinezkoa izango da dena delako eskubidea baliatzen edo jardueran aritzen jarraitzea, egitate horren berri izaten den unetik bertatik aurrera, hargatik eragotzi gabe izan litezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak. (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69.4 artikulua).

Oharra: Emandako datuek indarrean dagoen NAN/AIZn edo identifikazio fiskaleko txartelean ageri direnen berdin-berdinak izan beharko dute.

Eskabidearekin batera aurkeztu behar diren agiriak

Eskabidearekin batera, agiri orokor hauek aurkeztu beharko dira:

1. Eskabidea izenpetzen duenaren ahalordearen egiaztapen balioduna, baldin eta ahalordetzeen erregistro elektronikoan eman ez bada.
2. II. A eranskina. Inbertsioaren memoria deskribatzailea (ETEak).
3. II. B eranskina. Inbertsioaren memoria deskribatzailea (elkartek).
4. Aurrekontuak, proformako fakturak edo fakturak, argi eta garbi zehazten dituztenak dirulaguntzaren xede diren kontzeptuak eta inbertsioak.
5. Hala dagokionean, eskatutako eta aukeratutako eskaintzen zerrenda (IV A eranskina), eta, behar izanez gero, memoria (IV B eranskina).
6. Berrogeita hamar langile baino gehiago dituzten enpresek agiri bidez egiaztatu beharko dute sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko eta hari aurka egiteko neurriak hartu dituztela.

7. Bestela egiaztatzerik ez dagoenean, Administrazioarekin laguntzak, maileguak edo aurrerakinak itzultzeagatik zorrik ez izatearen erantzukizunpeko adierazpena, eta Europako Batzordeak laguntza bat legez kanpokotzat eta merkatu erkidearekin bateraezintzat jo ondoren berreskuratze-agindu baten mende ez egotearen erantzukizunpeko adierazpena.
8. V. eranskina. DNSH printzipioak betetzeko konpromisoari buruzko erantzukizunpeko adierazpena.
9. VI. eranskina. Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpena (IGEA)
10. VII. eranskina. Iruzuraren aurkako politikara atxikitzeko eta hura ezagutzeko erantzukizunpeko adierazpena.
11. VIII. eranskina. Finantzaketa bikoitzik ez duela dioten erantzukizunpeko adierazpena.
12. IX. eranskina. SEEPeko jarduketak betearazteari dagokionez administrazio publiko inplikatuaren artean datuak auditoriak egiteko eta funtsen erabilera kontrolatzeko asmoz lagatzea eta tratatzea onartzeko adierazpena, indarrean dagoen araudiaren arabera.
13. X. eranskina. SEEP-NextGenerationEUren jarduketak egiteko ezarri diren eta kudeatu beharreko esparruari eragiten dioten zeharkako printzipioak betetzeko konpromisoari buruzko erantzukizunpeko adierazpena.
14. XI. eranskina. Berariazko baimena Batzordeak, Iruzuraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoak (OLAF), Europako Kontuen Auzitegiak, Europako Fiskaltzak eta agintari nazional eskudunek beren eskumenak baliatzeko sarbidea izan dezaten.
15. XII. eranskina. Onuradunaren benetako titulartasuna identifikatzeko erantzukizunpeko adierazpena.
16. Jarduera ekonomikoak dituzten entitate onuradunek, irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 8. artikulua araberak, egiaztatu behar dute Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren enpresaburu, profesional eta atxikitzaileen erroldan edo Foru Zerga Administrazioaren errolda baliokidean inskribatuta daudela, eta inskripzio horrek laguntza eskatzen den egunean benetan duten jarduera ekonomikoa azaldu behar du.
17. Azpikontratazioaren kasuan, jarduerak dirulaguntzaren zenbatekoaren % 20 gainditzen duenean eta zenbateko hori 60.000 eurotik gorakoa denean, kontratua.
18. Merkataritza Eragiketetan Berankortasunaren Aurka Borrokatzeko Neurriak Ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitako ordainketa-epeak betetzeko, kontabilitateko araudiaren arabera galdu-irabazien kontu laburtua aurkeztu ezin duten sozietateentzat, legezko ordainketa-epeak bete dituztela egiaztatzen duen ziurtagiria, Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean inskribatutako auditore batek emana. Ziurtagiri horrek kontuan hartuko du enpresa bezeroaren ordainketen benetako epea, enpresa hornitzaileak alde aurretik kobratzeko duen edozein finantzaketa alde batera utzita.

Agiri orokorrekin batera, ETE-ek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

1. Hala badagokio, enpresaren titularraren NANA, pertsona fisikoa bada, eta enpresaren IFZ, pertsona juridikoa edo nortasun juridikorik gabeko entitateak badira (ondasun-erkidegoak eta sozietate zibilak).
2. Enpresaren jarduera nagusia egiaztatzen duen dokumentazioa. Jarduera horrek 2009ko Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionalen (EJSN-2009) 45, 46 edo 47 kodeetan sartuta egon behar du, eta honela egiaztatu behar da: notario-agiriaren bidez (sozietatearen eskriturak), Gizarte Segurantzak emandako ziurtagiri eguneratuaren bidez (enpresaren kotizazio-kontuaren kodearen txostena, alta emanda dauden langileen txostena), edo, autonomoen kasuan, lan-bizitzaren bidez. Enpresak berak aurkeztu beharko du dokumentazio hori, bai eta, hala badagokio, enpresa elkartuek edo hari lotutakoek ere.

Agiri orokorrekin batera, elkarteek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

1. Elkarrearen IFKren fotokopia eta ordezkariaren NANA, hala badagokio.

2. Entitate eskatzailearen estatutuak eta haien aldaketak, halakorik bada, dagokion erregistroan behar bezala inskribatuta, edo, hala badagokio, eratu berri diren elkarteen kasuan, erregistroan inskribatzeko eskabidea.

3. Elkarteko organo eskudunen erabakia, laguntza eskatzea erabakitzen duena.

4. III. eranskina. Presidenteak edo entitate eskatzailearen ordezkariak duen pertsonak elektronikoki sinatutako erantzukizunpeko adierazpena. Bertan, bazkide guztien zerrenda adierazi behar da, eta, bazkide bakoitzari dagokionez, honako hauek zehaztu behar dira: bazkidearen izena, garatzen duen jarduera, EJSNren sailkapenaren arabeko kodea eta EJSNren 45., 46. edo 47. kodeetan sartzen den jarduera duten bazkideen ehunekoa.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 28.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, Merkataritza Zuzendaritzak, dagozkion eskumenak egikaritzuz, agiri hauek eskuratuko ditu bitarteko elektronikoen bidez, ez bazara espresuki horren aurka agertzen:

1. Nortasun-datuen egiaztapena (Poliziaren Zuzendaritza Nagusia), pertsona fisikoen kasuan.
2. Identifikazio fiskaleko agiria, pertsona juridikoaren kasuan.
3. Egoitza fiskala (foru-ogasunak).
4. Ahalordetze-erregistro elektronikoko emandako ordezkariak-ahalmena.
5. Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatearen ziurtagiriak.

Aurka egonez gero, eskabidearekin batera aurkeztu beharko dira dokumentuak.

Informazio gehigarria

Datu pertsonalak egiaztatzea.

Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren zortzigarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera, jakinarazten zaizu Merkataritza Zuzendaritzak, dagozkion eskumenak egikaritzuz, beharrezkoak diren egiaztapenak egingo dituela frogatu ahal izateko eskabide honetan adierazi dituzun eta administrazio publikoen eskura dauden datu pertsonalak zehatzak direla.

Eskabideko sinadura elektronikoa:

## II. A ERANSKINA

MIKROENPRESENTZAKO, ENPRESA TXIKIENTZAKO ETA ERTAINENTZAKO PROIEKTUAK  
DESKRIBATZEN DITUEN MEMORIAREN EDUKIA

## 1. PARTEA: PROIEKTUA IDENTIFIKATZEA

Parte hau sarrerarako izango da, eta inbertsio-eskabidean planteatzen diren proiektuei buruzko informazio orokorra ematea du helburu.

1. 7. artikuluan deskribatutakoetatik finantza daitezkeen proiektuak
a) Eraldaketa digitala
b) Salmenta-puntua eraldatzea
c) Jasangarritasuna eta ekonomia zirkularra
d) Hornidura-katea eta trazabilitatea
e) Beste gastu finantzagarri batzuk
2. Proiektuaren/proiektuen deskribapen laburra/laburpena
3. Hasiera-data edo aurreikusitako data
4. Aurreikusitako amaiera-data
5. Guztizko inbertsio-aurrekontua (proiektu bakoitzeko banakatua eta BEZik gabe adierazia)
6. Finantzaketa-iturriak. (Berariaz adierazi beharko da kofinantzaketarik dagoen eta zenbatekoak eta ehunekoak)

## 2. PARTEA: PROIEKTUAREN JUSTIFIKAZIOA

Proiektuaren egokitasuna justifikatzeko da zati hau.

<p>1. Aurrekariak</p> <p>(Merkataritza-sektorearen abiapuntuko egoera, proiektuen egokitasuna eta beharrak ezagutzeko aukera ematen duten ekintzak zehaztuko dira. Horien guztien ondorioz, onuradunak hobeto hautatu eta egokituko ditu abiarazi beharreko ekintzak).</p>
<p>2. Proiektuaren justifikazioa</p> <p>(Justifikazioaren bidez erantzun nahi da zergatik den garrantzitsua proiektua egitea, zer arazo konpondu nahi diren, zer egin nahi den eta proiektuarekin zer onura lortu nahi diren).</p>
<p>3. Lortu nahi diren adierazleen arabeko helburuak</p>
<p>4. Proiektuak ingurumenaren kalitatea, energia-efizientzia eta ekonomia zirkularra hobetzeko egindako ekarpena. Egin behar den proiektu bakoitzaren ekarpena arrazoitu beharko du, honako helburu hauei dagokienez:</p> <p>a) Saltokiek eta kontsumitzaileek beren establezimenduetan sargaien kontsumoa murriztea, eta horien ordez ingurumena gehiago errespetatzen duten beste aukera batzuk ezartzea.</p> <p>b) Produktuak banatzeko, entregatzeko eta itzultzeko eragiketak optimizatzea, kostuak eta ingurumen-inpaktua murriztuko dituzten teknologia eta lankidetzaren ekosistema berriak erabiliz, eta, horretarako, azken miliari arreta berezia eskainiz.</p> <p>c) Merkataritza-establezimenduetan energia eta bestelako hornidurak kontsumitzean efizientzia hobetzeko irtenbide teknologikoak jarriko dituzten proiektuak ezartzea, eta oinarri teknologikoa duten prozesuak ezartzea, ekoefizienteak, hondakinak birziklatzeko eta berrerabiltzeko.</p> <p>d) Energia-iturri berriztagarriak instalatzea, atmosfera berotzeko ahalmen gutxiko edo txikiko teknologiak erabiltzea klimatizazioan, bai eta jasangarritasuna eta efizientzia areagotzera bideratutako beste edozein jarduketa edo irtenbide ere, baldin eta karbono gutxiko ekonomia lortzeko, hondakinen sorrera murrizteko, ekonomia zirkularerako, zero hondakinertarako eta klima-aldaketara egokitzeko balio badute.</p>
<p>5. Proiektuak duen gaitasuna digitalizazio-maila, kontsumo-ohitura berrietarako egokitzapena, bezero-ezagutza eta -harremana eta bezero-fidelizazioa hobetuko dituzten teknologiak txertatzeko. Egin behar den proiektu bakoitzaren ekarpena arrazoitu beharko du, honako helburu hauei dagokienez</p> <p>a) Entitate onuradunaren digitalizazio-maila hobetzea, haren barne-kudeaketan eraginez.</p> <p>b) Entitate onuradunaren digitalizazio-maila hobetzea, haren negozio-estrategian eraginez.</p>

2023ko martxoaren 27a, astelehena

c) Bezeroaren gaineko ezagutza eta harekiko harremana hobetzeko teknologia berriak sartzea, bezero-fidelizazioa sustatuz.

d) Kontsumo-ohitura berrietara egokitzea.

6. Erabiltzailearen erosketa-esperientzia online eta establezimendu fisikoan hobetzeko gaitasuna. Modu arrazoituan azaldu beharko du zein proiektuk laguntzen duten online erosketaren eta erosketa fisikoaren esperientzia hobetzen.

7. Proiektuak balio erantsia sortzeko duen gaitasuna. Eskatzaileak modu fede-emailean frogatu beharko du zer berritasun dakarren proiektuak, baita zer ahalmen duen ere balio erantsia sortzeko.

8. Aurretiazko diagnostiko independente bat.

### 3. PARTEA: PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

1. Finantza daitekeen proiektuaren deskribapen osoa.

2. Finantza daitekeen proiekturako eskatzen den guztizko aurrekontua, BEZik gabe (€).

### 4. parte. ENPRESAREN EZAUGARRIAK

1. Merkataritza-enpresaren historia. Bertan, enpresa gisa lanean noiz hasi zen, enpresaren jatorria, bilakaera, eta establezimenduetan gaur arte bizirauteko izan diren belaunaldi-erleboak edo eskualdaketak aipatuko dira.

\_\_\_\_\_ (e)n, 202\_ (e)ko \_\_\_\_\_ aren \_\_\_\_\_ (e)(a)n

Sinadura:

NAN:

## II. B ERANSKINA

## ELKARTEENTZAKO INBERTSIOA DESKRIBATZEN DUEN MEMORIAREN EDUKIA

## 1. PARTEA: PROIEKTUA IDENTIFIKATZEA

Parte hau sarrerarako izango da, eta inbertsio-eskabidean planteatzen diren proiektuei buruzko informazio orokorra ematea du helburu.

1. 7. artikuluan deskribatutakoetatik finantza daitezkeen proiektuak
a) Eraldaketa digitala
b) Salmenta-puntua eraldatzea
c) Jasangarritasuna eta ekonomia zirkularra
d) Hornidura-katea eta trazabilitatea
e) Beste gastu finantzarri batzuk
2. Proiektuaren deskribapen laburra/laburpena
3. Hasiera-data edo aurreikusitako data
4. Aurreikusitako amaiera-data
5. Inbertsio osoaren aurrekontua (Egin behar den proiektu bakoitzaren arabera banakatuta, BEZik gabe adierazita)
6. Finantzaketa-iturriak. (Berariaz adierazi beharko da kofinantzaketarik dagoen eta zenbatekoak eta ehunekoak)



## 2. PARTEA: PROIEKTUAREN JUSTIFIKAZIOA

Proiektuaren egokitasuna justifikatzeko da zati hau.

<p>1. Aurrekariak (Merkataritza-sektorearen abiapuntuko egoera, proiektuen egokitasuna eta beharrak ezagutzeko aukera ematen duten ekintzak zehaztuko dira. Horien guztien ondorioz, onuradunak hobeto hautatu eta egokitu dituzte abiarazi beharreko ekintzak).</p>
<p>2. Proiektuaren justifikazioa (Justifikazioaren bidez erantzun nahi da zergatik den garrantzitsua proiektua egitea, zer arazo konpondu nahi diren, zer egin nahi den eta proiektuarekin zer onura lortu nahi diren).</p>
<p>3. Lortu nahi diren helburuak, adierazlearen arabera</p>
<p>4. Proiektuak ingurumenaren kalitatea, energia-efizientzia eta ekonomia zirkularra hobetzeko egindako ekarpena. Egin behar den proiektu bakoitzaren ekarpena arrazoitu beharko du, honako helburu hauei dagokienez:</p> <p>a) Saltokiek eta kontsumitzaileek beren establezimenduetan sargaien kontsumoa murriztea, eta horien ordean ingurumena gehiago errespetatzen duten beste aukera batzuk ezartzea.</p> <p>b) Produktuak banatzeko, entregatzeko eta itzultzeko eragiketak optimizatzea, kostuak eta ingurumen-inpaktua murrizten dituzten teknologia eta lankidetzaren ekosistema berriak erabiliz, eta, horretarako, azken miliari arreta berezia jarritz.</p> <p>c) Merkataritza-establezimenduetan energia eta bestelako hornidurak kontsumitzean efizientzia hobetzeko irtenbide teknologikoak jarriko dituzten proiektuak ezartzea, eta oinarri teknologikoa duten prozesuak ezartzea, ekofizienteak, hondakinak birziklatzeko eta berrerabiltzeko.</p> <p>d) Energia-iturri berriztagarriak instalatzea, atmosfera berotzeko ahalmenik ez duten edo ahalmen txikia duten teknologia erabiltzea klimatizazioan, bai eta jasangarritasuna eta efizientzia areagotzeko beste edozein jarduketara edo irtenbide ere, baldin eta karbono gutxiko ekonomia lortzeko, hondakin gutxiago sortzeko, ekonomia zirkularrerako, dena aprobetxatzeko eta klima-aldaketara egokitzeko balio badute.</p>
<p>5. Proiektuak duen gaitasuna digitalizazio-maila, kontsumo-ohitura berrietarako egokitzapena, bezero-ezagutza eta -harremana eta bezero-fidelizazioa hobetuko dituzten teknologia txertatzeko. Egin behar den proiektu bakoitzaren ekarpena arrazoitu beharko du, honako helburu hauei dagokienez</p> <p>a) Entitate onuradunaren digitalizazio-maila hobetzea, haren barne-kudeaketan eraginez.</p> <p>b) Entitate onuradunaren digitalizazio-maila hobetzea, haren negozio-estrategian eraginez.</p> <p>c) Bezeroaren gaineko ezagutza eta harekiko harremana hobetzeko teknologia berriak sartzeari, bezero-fidelizazioa sustatuz.</p> <p>d) Kontsumo-ohitura berrietara egokitzea.</p>

2023ko martxoaren 27a, astelehena

6. Erabiltzailearen erosketa-esperientzia online eta establezimendu fisikoan hobetzeko gaitasuna. Modu arrazoituan azaldu beharko du zein proiektuk laguntzen duten online erosketaren eta erosketa fisikoaren esperientzia hobetzen.

7. Proiektuak balio erantsia sortzeko duen gaitasuna. Eskatzaileak modu fede-emailean frogatu beharko du zer berritasun dakarren proiektuak, baita zer ahalmen duen ere balio erantsia sortzeko.

8. Merkataritza-sektoreko bazkideen ehunekoa. (Bazkide kopurua, bazkideak, bazkide bakoitzaren EJSN, merkataritza-sektoreko bazkideen ehunekoa)

9. Proiektuen onuradun diren bazkideen ehunekoa

### 3. PARTEA: PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

1. Finantza daitekeen proiektuaren deskribapen osoa.

### 4. parte. ONURADUN POTENTZIALAREN EZAUGARRIAK

1. Egindako ekintzen eragina. Proiektuek toki-, autonomia- edo estatu-mailan duten eragina azaldu beharko da, arrazoituta, kasuaren arabera.

\_\_\_\_\_ (e)n, 202\_ (e)ko \_\_\_\_\_ aren \_\_\_\_\_ (e)(a)n

Sinadura:

NAN:

## III. ERANSKINA

BAZKIDEEN KOPURUAREN ETA EGINDAKO JARDUERAREN  
ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

Elkartearen izena	
Bazkide kopurua, guztira	
Merkataritza-jarduera garatzen duten bazkideen guztizko kopurua (EJSN 45, 46, 47, EJSN 2009ren arabera)	
Merkataritza-jarduera garatzen duten bazkideen ehunekoa (EJSN 45, 46, 47, EJSN 2009ren arabera) bazkide guztiekiko	

Bazkide kop.:	IFZ/IFKn agertzen den sozietate-izena	IFZ/IFK	Jarduera*	Jardueraren kodea, EJSN 2009ren arabera
1				
2				
3				
4				
5				
6				
7				
8				
9				

(Errepikatu behar den guztietan)

\_\_\_\_\_ (e)n, 202\_ (e)ko \_\_\_\_\_ aren \_\_\_\_\_ (e)(a)n

Sinadura:

NAN:

2023ko martxoaren 27a, astelehena

## IV A ERANSKINA

## ESKATUTAKO ETA AUKERATUTAKO ESKAINTZEN ZERRENDA

Justifikazio hau 7.6 artikuluko zenbatekoak berdintzen edo gaintitzen dituen gastu bakoitzerako bete behar da:

ENTITATE ESKATZAILEAREN DATUAK										
Sozietate-izena										IFZ
Zk.	Gastuaren kategoria	Proiektua <sup>1</sup>	Gastu-kontzeptua(k)	Eskatutako eskaintzak		Aukeratutako eskaintzak				Memoria erantsi da <sup>3</sup> (BAI/EZ)
				Hornitzailea	Zenbatekoa (BEZik gabe) (euro)	Hornitzailea	Zenbatekoa (BEZik gabe) (euro)	Zenbatekoa (BEZa barne) (euro)	Hautatzeko irizpidea <sup>2</sup>	

<sup>1</sup> Proiektu batek hainbat gastu-kontzeptu barne har ditzake.

<sup>2</sup> Arrazoi eskaintza ekonomiko onena edo beste arrazoi batzuk izan diren adierazi behar da.

<sup>3</sup> Nahitaezkoa, ekonomikoki abantailatsuen ez denean edo eskaintza bakarra aurkeztu ahal denean.



## V. ERANSKINA

INGURUMENARI KALTE NABARMENIK EZ ERAGITEKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA  
(DNSH PRINTZPIOA)

\_\_\_\_\_ jaunak/andreak, adinez nagusia (NAN zenbakia: \_\_\_\_\_), (bere izenean / \_\_\_\_\_ pertsona fisiko/juridikoaren izenean, zeina \_\_\_\_\_ IFZ zenbakiarekin identifikatuta baitago), \_\_\_\_\_ egoitza soziala duenak, eta onuradun gisa diharduenak,

## ADIERAZTEN DU:

Lehenengoa.– Honako proiektu honetarako eskabidea aurkeztu du:

\_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_

Eta proiektuak baldintza hauek betetzen ditu:

1. Bertan gauzatzen diren jarduerak ez diete kalte nabarmenik eragiten beheko ingurumen-helburuei, ingurumenaren aldetik jasagarriak diren jarduera ekonomikoen sailkapen-sistema bat (edo «taxonomia») ezarriz inbertsio jasagarriak errazteko esparru bat ezartzeari buruzko 2020/852 (EB) Erregelamenduaren 17. artikulua araberako:
  - a. Klima-aldaketa arintzea.
  - b. Klima-aldaketara egokitzea.
  - c. Baliabide hidrikoak eta itsas baliabideak jasagarritasunez erabiltzea eta babestea.
  - d. Ekonomia zirkularra, hondakinen prebentzioa eta birziklapena barne.
  - e. Atmosferako, uretako edo lurzoruko kutsadura prebenitzea eta kontrolatzea.
  - f. Biodibertsitatea eta ekosistemak babestea eta lehengoritzea.
2. Jarduerak, hala badagokio, osagaia neurtzeko eta azpineurria egiteko ezarritako ezaugarrietara eta baldintzetara egokitzen dira, eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean islatzen dira.
3. Proiektuan gauzatzen diren jarduerak aplikatzekoa den indarreko ingurumen-araudia beteko dute.
4. Gauzatzen diren jarduerak ez daude baztertuta planaren bitartez finantzatzeko aukeratik, «kalte nabarmenik ez eragiteko» printzipioa aplikatzeari buruzko gida teknikoaren arabera, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoari buruzko Erregelamenduari (2021/C58/01) jarraikiz, Espainiako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren ebaluazioa onartzeari buruzko Kontseiluaren Betearazpen Erabakiaren Proposamenari eta dagokion eranskinari jarraikiz.
5. Gauzatzen diren jarduerak ez dute zuzeneko ondoriorik eragiten ingurumenean, ez eta lehen mailako zeharkako ondoriorik ere beren bizi-ziklo osoan; halakotzat jotzen dira jarduera amaitu ondoren gauzatu daitezkeenak.

Bigarrena.– Badaki eta onartzen du adierazpen honetan ezarritako baldintzaren bat betetzen ez bada, jasotako zenbatekoak eta dagozkien berandutze-interesak itzuli beharko dituela.

\_\_\_\_\_ (e)n, 202\_ (e)ko \_\_\_\_\_ aren \_\_\_\_\_ (e)(a)n

Sinadura:

NAN:

## VI. ERANSKINA

## INTERES-GATAZKARIK EZAREN ADIERAZPENA (IGEA)

\_\_\_\_\_ jaunak/andreak, adinez nagusia (NAN zenbakia: \_\_\_\_\_), (bere izenean / \_\_\_\_\_ pertsona fisiko/juridikoaren izenean, zeina \_\_\_\_\_ IFZ zenbakiarekin identifikatuta baitago), \_\_\_\_\_ egoitza soziala duenak, eta onuradun gisa diharduenak,

Lehenengoa.– Adierazten dut badudala hauen berri:

1.– Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduaren (EBko finantza-erregelamendua) 61.3 artikulua, «Interes-gatazkak» izenekoak, ezartzen duenez, «interes-gatazka egongo da funtzioak inpartzialki eta objektiboki betetzea kolokan badago familia, afektu, kidesun politiko edo nazionalengatik, interes ekonomikoengatik edo interes pertsonaleko zuzeneko edo zeharkako edozein arrazoiengatik».

2.– Sektore Publikoko Kontratuari buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 64. artikulua («Ustelkeriaren aurkako borroka eta interes-gatazken prebentzioa») helburua da lehiaren distorsio oro saihestea eta prozedura gardena dela eta hautagai eta lizitzaile guztientzat tratua berdina dela bermatzea.

3.– Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikulua («Abstenitzea») ezartzen du prozeduran esku hartetik abstenituko direla «administrazioetako agintari edo langileak, hurrengo zenbakian aipaturiko egoeraren batean daudenean», zehazki egoera hauetan:

a) Interes pertsonala izatea aztertuko den gaian edo gai horretako ebazpenak eragin diezaiokeen beste batean; sozietate edo entitate interesdunen bateko administratzaile izatea, edo interesdunen batekin ebatzi gabeko auziren bat izatea.

b) Ezkontza-lotura edo antzeko egitatezko egoera izatea, eta ahaidetasuna izatea, laugarren gradurainoko odolkidetasunezkoa edo bigarren gradurainoko ezkontza-ahaidetasunezkoa, interesdunetako edozeinekin, entitate edo sozietate interesdunen bateko administratzaileekin, bai eta prozeduran esku hartzen duten aholkulari, legezko ordezkari edo mandatariekin ere, edo haien bulego profesional berekoa izatea edo haiekin elkartuta egotea aholkularitza, ordezkaritza edo mandataritzarako.

c) Aurreko apartatuan aipaturiko pertsonaren batekin adiskidetasun mina edo etsaitasun agerikoa izatea.

d) Dagokion prozeduran aditu edo lekuko moduan aritzea.

e) Gaian zerikusi zuzena duen pertsona fisiko edo juridikoren batekin zerbitzu-harremana izatea edo pertsona horri azken bi urteetan edozein era, baldintza eta tokitan lan-zerbitzuak eskaini izana.

Bigarrena.– Honako hau adierazten dut:

1.– Ez dago EBren Finantza Erregelamenduaren 61.3 artikuluan interes-gatazkatzat jotzen diren egoeretako ezeinetan, eta ez dago, hortaz, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23.2 artikuluan ezartzen diren eta prozeduran eragina izateko arriskua dakarten abstenitzeko arrazoietako ezeinen mende.



Hirugarrena.– Honako hau adierazten dut:

1.– Konpromisoa hartzen du interes-gatazken egoera oro edo egoera hori eragin duen edo dezakeen abstentzio-kausa oro kontratazio-organoari/hautaketa-organoari luzamenik gabe jakinarazteko.

2.– Konfidentziasunez tratatuko ditu prozedura horien esparruan garatzen diren gaiak eta dokumentazioa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 133. artikuluan ezarritako betebeharren esparruan.

Laugarrena.– Honako hau adierazten dut:

1.– Badakit interes-gatazkarik ez daukadala adierazteko aurkeztu dudan agiria faltsua dela frogatzen bada aplikatu beharreko araudiak ezartzen dituen diziplina-, administrazio- eta justizia-ondorioak izango ditudala.

\_\_\_\_\_ (e)n, 202\_ (e)ko \_\_\_\_\_ aren \_\_\_\_\_ (e)(a)n

Sinadura:

NAN:

## VII. ERANSKINA

IRUZURRAREN AURKAKO POLITIKARA ATXIKITZEKO ETA HURA EZAGUTZEKO  
ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

\_\_\_\_\_ jaunak/andreak, adinez nagusia (NAN zenbakia: \_\_\_\_\_), (bere izenean / \_\_\_\_\_ pertsona fisiko/juridikoaren izenean, zeina \_\_\_\_\_ IFZ zenbakiarekin identifikatuta baitago), \_\_\_\_\_ egoitza soziala duenak, eta onuradun gisa diharduenak,

## HAU DEKLARATZEN DU:

LEHENENGOA.– Iruzurraren aurkako neurrien plan propioa dutela, eta hura bat datorrela Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduan eta irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduan xedatutakoarekin, Kontu Hartzailtza Nagusiek eta Zerbitzu Juridikoek Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoen arloan ematen dituzten gomendioekin, erakunde publikoetako kontrol-organo baliokideekin eta jarraibideekin, bai eta EBk iruzurraren aurka ezartzen duenarekin ere.

Halakorik ezean, bat egiten dute Gobernu Kontseiluak 2022ko martxoaren 29an onartutako Eusko Jaurlaritzaren Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko orduan iruzurraren, interes-gatazken, finantzaketa bikoitzaren eta estatu-laguntzen kontra egiteko eta ingurumenari kalte nabarmenik ez egiteko eskatzen diren baldintzak betetzeko neurrien planarekin.

BIGARRENA.– Iruzurraren aurkako politikaren edukia ezagutzen dutela, bai eta iruzurraren aurka ezartzen diren betebeharrak ere, eta ahalik eta publizitaterik handiena emateko konpromisoa hartzen dutela.

HIRUGARRENA.– \_\_\_\_\_ jauna/andrea izendatzen duela iruzurraren aurkako borrokaren arloan Eusko Jaurlaritzarekin hitz egiteko solaskide.

\_\_\_\_\_(e)n, 202\_(e)ko \_\_\_\_\_aren \_\_\_\_\_(e)(a)n

Sinadura:

NAN:

## VIII. ERANSKINA

## FINANTZAKETA BIKOITZIK EZ DUELA DIOEN ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

\_\_\_\_\_ jaunak/andreak (NAN: \_\_\_\_\_),  
\_\_\_\_\_ entitatearen titular/ordezkarri den aldetik (IFZ:  
\_\_\_\_\_); zerga-egoitza:  
\_\_\_\_\_), eta SEEPetik datozen  
baliabideen hartzaile den aldetik \_\_\_\_\_  
(deialdiaren izena) izeneko jardueraren esparruan, bere erantzukizunpean aitortzen du gai  
hauei buruz:

Ez duela laguntzarik jaso Europar Batasuneko funtsetatik, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa (SEM) ezartzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamendukoaz bestelakoetatik, eta gero ere ez duela aurkeztuko aurrekontu nazionaletik edo EBtik hornitzen den beste edozein funtsek finantzatu dezan.

Jarraitu, aurreko baieztapenean laukitxoa markatu ez bada soilik, hau da, proiektuak beste funtsen baten finantzaketa jaso badu, edo etorkizunean jasotzekoa bada, helburu bererako:

Konpromisoa hartzen duela laguntzak/dirulaguntzak arautzen dituzten oinarrietan ezarritako mugen barruan errenditzeko.

Konpromisoa hartzen duela gastuen jarraipena egiteko, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren kudeaketa-sistema eratzen duen irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 7. artikuluan xedatutakoaren arabera finantzaketa bikoitzik ez dagoela ziurtatzeko.

Proiektuaren finantzaketaren trazabilitatea bermatzen duten mekanismoak eta kudeaketa-ahalmena badaudela.

Konpromisoa hartzen duela, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 30.4 artikuluen arabera, finantzaketa bikoitzik ez dagoela egiaztatzeko justifikazio-agiriak aurkezteko.

2023ko martxoaren 27a, astelehena

 Honako datu hauek ematen direla:

DIRULAGUNTZA PUBLIKOAK. Xede berberarekin beste administrazio edo entitate publiko batek emandako edo hari eskatutako laguntzak eta dirulaguntzak			
Administrazioa edo entitate publikoa	Xedea	Egoera	Guztira (euro)
Eskatutakoa, guztira: _____ €		Emandakoa, guztira: _____ €	

\_\_\_\_\_(e)n, 202\_(e)ko \_\_\_\_\_aren \_\_\_\_\_(e)(a)n

Sinadura:

Kargua: \_\_\_\_\_

## IX. ERANSKINA

## SEEP-EKO JARDUKETAK BETETZEARI DAGOKIONEZ DATUAK LAGATZEKO ETA TRATATZEKO ADIERAZPENA

..... jauna/andrea, edo hark ordezkaten duena (kontratista/onuraduna) ..... (IFZ: .....; zerga-egoitza: .....), SEEPeko baliabideek finantzatutako laguntzen onuraduna da, XX. osagaian (".....") zehaztutako helburuak lortzeko behar diren jarduketak aurrera eramaten dituen kontratista/azpikontratista/onuraduna den aldetik. Eta adierazten du ezagutzen duela aplikatzekoa den araudia; zehazki, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/41 (EB) Erregelamenduaren 22. artikulua apartatu hauek:

1.– 2. apartatuko d) letra: «Suspertze- eta erresilientzia-planaren barruan erreformak eta inbertsio-proiektuak egiteko neurri dagokionez, funtsen erabileraren auditoria eta kontrola egiteko, datu hauen kategoria harmonizatuak biltzea, bilaketak egiteko aukera ematen duen formatu elektronikoa batean, eta datu-base bakarrean:

a) Funtsen azken hartzailearen izena.

b) Kontratatzen eta azpikontratisten izenak, funtsen azken hartzailea botere esleitzaileraren denean kontratazio publikoaren arloko Batasuneko edo nazioko zuzenbidearen arabera.

c) Funtsen hartzailearen edo kontratatzen titular errealeko izen-abizenak eta jaiotegunak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015/849 (EB) Zuzentarauaren 3. artikulua 6. puntuari jarraituz (26).

d) Suspertze-, eraldatze- eta erresilientzia-planaren esparruan erreformak eta inbertsio-proiektuak egiteko neurrien zerrenda, neurri horien finantzaketa publikoaren zenbateko osoa zehaztuta eta mekanismoaren esparruan ordaindutako funtsen eta Batasuneko beste funts batzuen zenbatekoa adierazita».

2.– 3. apartatua: «15. artikulua 2. apartatua eta 23.aren 1. apartatua aipatutako akordioak aplikatzeari lotutako funtsen erabileraren kontrol-prozedurei eta aurrekontu-kudeaketa onartzeari buruzko auditoria egiteko erabiliko dituzte soilik, eta horretarako behar den denboran soilik, Batzordeak eta estatu kideek artikulua honen 2. apartatuko d) letran aipatzen diren datu pertsonalak. Batzordearen kudeaketa onartzeko prozeduraren esparruan, bat etorritik EBFTren 319. artikuluaekin, mekanismoak txostenak aurkeztu beharko ditu finantza-informazioari eta kontuak modu integratuan emateari dagokionez Finantza Erregelamenduaren 247. artikulua aipatzen duen esparruan, eta, bereziki eta modu berezian, kudeaketaren eta errendimenduaren urteko txostenean»

Azaldutako esparru juridikoarekin bat etorritik, adierazten du onartzen duela datuak lagatzea eta tratatzea aipatutako artikuluetan berariaz zerrendatutako helburuekin.

.....(e)n, 202\_(e)ko .....aren .....(e)(a)n

Sinadura:

NAN:

## X. ERANSKINA

## SEEP-EKO JARDUKETAK EGITEKO KONPROMISOA HARTZEKO ADIERAZPENA

[<sup>1</sup>] ..... jaunak/andreak, bere izenean edo .....  
(operadore ekonomikoa) ordezkatuz (operadore ekonomikoaren IFZ: .....),

..... zenbakiko espedientea duen lizitazio-prozedurari / dirulaguntza-deialdiari buruz

Lehenengoa.– Arau juridiko, etiko eta moralak betetzearekin loturiko estandar zorrotzenen aldeko konpromisoa hartzen du, eta, horretarako, iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitzeko eta atzemateko behar diren neurriak hartzen ditu eta, hala badagokio, atzemandako ez-betetzeak dagozkien agintariei jakinarazten dizkie.

Bigarrena.– SEEPren edukia kontuan hartuta, konpromisoa hartzen du ekonomia zirkularraren printzipioak betetzeko eta ingurumenari kalte nabarmenik ez eragiteko («DNSH», «do no significant harm» esapidearen ingelesezko siglak) plan horren esparruko jarduketetan.

Hirugarrena.– Ez du finantzaketa bikoitzik, eta, haren ustez, ez dago arriskurik Estatuko laguntzen araubidearekiko bateraezintasuna izateko.

\_\_\_\_\_ (e)n, 202\_ (e)ko \_\_\_\_\_ aren \_\_\_\_\_ (e)(a)n

Sinadura:

NAN:

[<sup>1</sup>] Operadore ekonomiko bik edo gehiagok batera aurkezten badute eskaintza, eta konpromisoa adierazten badute adjudikaziodun izanez gero ABEEa formalki eratzeko, operadore guztien ordezkariek sinatubeharko dute deklarazio hau.

## XI. ERANSKINA

## AGINTARIEN SARBIDERAKO BERARIAZKO BAIMENA EMATEKO ADIERAZPENA

\_\_\_\_\_ jaunak/andreak, adinez nagusia (NAN zenbakia: \_\_\_\_\_),  
(bere izenean / \_\_\_\_\_ pertsona fisiko/juridikoaren izenean, zeina \_\_\_\_\_ IFZ zenbakiarekin  
identifikatuta baitago), \_\_\_\_\_ egoitza soziala duenak, eta onuradun gisa  
diharduenak,

## BAIMENA EMATEN DIOT:

Batzordeari, Iruzuraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoari, Europako Kontuen Auzitegiari,  
Europako Fiskaltzari eta estatuko nahiz Batasuneko agintaritzak eskudunei, euren eskumenak  
baliatzeko, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB)  
Erregelamenduaren 22.2.e) artikuluan eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko  
uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduaren (Finantza Erregelamendua) 129.  
artikuluan xedatutakoari dagokionez.

\_\_\_\_\_ (e)n, 202\_ (e)ko \_\_\_\_\_ aren \_\_\_\_\_ (e)(a)n

Sinadura:

NAN:

## XII. ERANSKINA

## BENETAKO TITULARTASUNARI BURUZKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

\_\_\_\_\_ jaunak/andreak (NAN: \_\_\_\_\_),  
\_\_\_\_\_ entitatearen titular/ordezkar den aldetik  
(IFZ: \_\_\_\_\_; zerga-egoitza: \_\_\_\_\_),  
eta SEEPetik datozen baliabideen hartzaile den aldetik \_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_ (deialdiaren izena) izeneko jardueraren esparruan,

## ADIERAZTEN DU:

Lehenengoa.– Badakiela irailaren 29ko HFP/1031/2021 Aginduak 8. artikuluan zer xedatzen duen, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduaren 22.d) artikuluko eskakizuna betetzeko; erregelamendu horren bidez, funtsen **azken hartzailearen identifikazioari buruzko informazioa eman behar da (funtsen hartzailearen izen-abizenak eta benetako titularren jaioteguna**, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015/849 (EB) Zuzentarauaren 3. artikuluen 6. puntuan benetako titularraz ematen duen definizioa kontuan hartuta).

Bigarrena.– Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015/849 (EB) Zuzentarauaren 3. artikuluko 6. puntuan adierazitakoaren arabera honako hauek direla benetako titullarrak (hau da, jabetza edo azken buruan bezeroaren kontrola duten pertsona fisikoak edo beren kontura transakzio edo jarduerak<sup>[1]</sup> egiten diren pertsona fisikoak):

[1]Pertsona juridikoen kasuan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015/849 (EB) Zuzentarauaren 3. artikuluen 6. puntuaren arabera, gutxienez honako hauek hartuko dira kontuan:

(i) <<Azken buruan pertsona juridiko baten jabetza edo kontrola duten pertsona fisikoak, entitate horretan akzioen, boto-eskubideen edo jabetza-eskubideen ehuneko nahikoaren zuzeneko edo zeharkako jabetzaren bidez (eramailearentzako akzio-zorroak barne) edo beste bitarteko batzuen bidez, merkatu arautu batean kotizatzen duten eta Batasuneko Zuzenbidearekin bat datozen informazio-betekizunen edo jabetzaren gaineko informazioaren garrantasun egokia bermatzen duten nazioarteko arau baliokideen mende dauden sozietateak izan ezik.

Zuzeneko jabetzaren zantzua izango da pertsona fisiko batek kapital sozialean % 25eko partaidetza gehi akzio bat edo bezeroarengan % 25etik gorako jabetza-eskubidea izatea. Zeharkako jabetzaren zantzua izango da pertsona fisiko baten edo batzuen kontrolpean (edo sozietate batzuen kontrolpean, baldin eta horiek pertsona fisiko beraren edo berberen kontrolpean badaude) dagoen % 25eko gehi akzio bateko partaidetza izatea kapital sozialean, edo % 25etik gorako jabetza-eskubide bat bezeroarengan. Estatu kideek ehuneko txikiagoa jabetzaren edo kontrolaren zantzu izan daitekeela erabakitzeko duten eskubideari kalterik egin gabe aplikatuko da aurreko hori. «Beste bitarteko batzuen bidezko kontrola» badela zehaztu ahal izango da, besteak beste, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013/34/EB Zuzentarauaren 22. artikuluko 1. paragrafotik 5.era bitartekoetan ezarritako irizpideen arabera.

Izan daitezkeen bitarteko guztiak agortu ondoren, eta betiere susmo-arrazoirik ez badago, i) tartekiaren arabera inor identifikatzen ez bada, edo identifikatutako pertsona edo pertsonak benetako titullarrak edo goi-mailako zuzendaritza-kargua betetzen duten pertsona fisikoak diren zalantzak badaude, behartutako erakundeek i) tartekiaren eta tarteki honen arabera benetako titulartasuna nork duen identifikatzeko hartutako neurrien erregistroak gordeko dituzte;



2023ko martxoaren 27a, astelehena

BENETAKO TITULARTASUNA				
Bazkidearen edo akziodunaren izen osoa	NAN/AIZ/ Pasaportea	Nazionalitatea edo egoitza soziala	Jaioteguna	Parte-hartzea (%)

Hirugarrena.– Badakiela ezen, eskatuz gero, benetako titularraren/titularren notario-aktaren kopia entregatu beharko diola Eusko Jaurlaritzako entitate betearazleari, azken esleipenduna edo hartzailea merkataritza-sozietate bat bada, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduan eta irailaren 29ko HFP/1031/2021 Aginduan ezarritakoaren arabera.

\_\_\_\_\_ (e)n, 202\_ (e)ko \_\_\_\_\_ aren \_\_\_\_\_ (e)(a)n

Sinadura:

NAN:

Kargua:

2023ko martxoaren 27a, astelehena

## XIII. ERANSKINA

MERKATARITZA MODERNIZATZEKO LAGUNTZAK, SUSPERTZE, ERALDATZE ETA  
ERRESILIENTZIA PLANAREN ESPARRUAN – EUROPAR BATASUNAK FINANTZATUA – NEXT  
GENERATION EU

(FUNTS TEKNOLOGIKOAREN PROGRAMA)

(Erref.: 1221402)

DIRULAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA

JUSTIFIKAZIO EREDUA

ESPEDIENTE ZK.	
Instrukzio-organo honi zuzendua: Merkataritza Zuzendaritza	

## 1.– TITULARRAREN DATU PERTSONALAK

Pertsona edo entitate eskatzailea	
Identifikazio-zenbakia	

## 2.– EGITATEAK ETA ARRAZOIAK

<p>Azaltzen dut:</p> <p>&gt; Eskabidea aurkeztu da prozedura honetarako:</p> <p>Merkataritza modernizatzeko laguntzak (funts teknologikoa)</p>
--

## 3.– ESKAERA

<p>Hau eskatzen dut:</p> <p>&gt; Erantsitako justifikazio-dokumentazioa onartzea nire espedientean.</p>
---

## 4.- ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAK

## A) Justifikazio-datuei dagokienez:

- Oinarrietan eta emakida-ebazpenean ezarritako baldintzak betetzen ditu.
- Proiektuak egin dira, osorik edo zati batean, eta proiektuaren emaitzak lortu dira, proiektuaren amaierako memoriaren eta erantsitako justifikazioko kontuaren bidez justifikatzen den bezala.
- Egiazkoak eta ondo osatuak dira eskabide honetako datu guztiak, baita aurkezten dudan dokumentazioa ere, eta nire gain hartzen dut dagokidan erantzukizuna (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.7 artikulua).
- Agindu honetan ezarritako baldintzak betetzen ditut, bai eta aplikagarri den estatu-araudia eta Europar Batasuneko ere (bereziki, lehia, kontratazio eta obren eta horniduren adjudikazioaren eta ingurumenaren arloan), eta hitz ematen dut proiekturako behar diren lizentzia eta baimen guztiak aurkeztuko ditudala horiek jasotzean.

Erantzukizunpeko adierazpenean jasotzen den funtsezko datu edo informazioen bat zehaztasunik gabea edo faltsua bada edo aurkeztu ez bada, edo administrazio eskudunari ez bazaio aurkezten erantzukizunpeko adierazpena, edo deklaratzeko dena betetzen dela egiaztatzeko eskatzen den dokumentazioa, ezinezkoa izango da dena delako eskubidea baliatzen edo jardueran aritzen jarraitzea, egitate horren berri izaten den unetik bertatik aurrera, hargatik eragotzi gabe izan litezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak.

Halaber, administrazio publikoak halako zerbait gertatu dela adierazten dueneko ebazpenak xedatu ahal izango du interesduna behartuta dagoela egoera juridikoa leheneratzera eskubidea aitortu edo baliatu edo jarduera hasi aurreko unera, eta ezinezkoa dela xede bereko beste prozedura bat hastea legeak zehaztutako epe batean; hori guztia, aplikatzekoak diren arau sektorialetan ezarritako moduan. (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69.4 artikulua).

## B) Bestelako laguntzei dagokienez:

- Ez du eskabiderik aurkeztu edo laguntzarik lortu inbertsio honetarako erakunde publiko zein pribatuetatik, gaur arte: (ez bada betetzen, ulertuko da ez duela beste laguntzarik eskatu).
- Laguntza-eskabide honez gain, inbertsio honetarako eskabidea aurkeztu du edo laguntza eskuratu du erakunde publiko edo pribatu hauetan, gaur arte:

Bestelako laguntzak:

Eskaera-urtea	Erakundea	Programa	Laguntza mota	Jarduera	Eskatutako zenbatekoa	Emandako dirulaguntza

Errepikatu behar den guztietan.

Azken hiru urteetan ez du jaso Europar Batasuneko zuzentarauek ezarritako de minimis aruari (1) lotutako laguntza edo dirulaguntzarik.

Azken hiru urteetan, aurtengoa barne hartuta, Europar Batasuneko zuzentarauek ezarritako de minimis aruari (1) lotutako laguntza edo dirulaguntza hauek jaso ditu.

*De minimis* laguntza:

Eskaera-urtea	Erakundea	Programa	Laguntza mota	Jarduera	Eskatutako zenbatekoa	Emandako dirulaguntza

Errepikatu behar den guztietan.

(1) *De minimis* arauaren arabera, *de minimis* kontzeptupean enpresa batek gehienez 200.000 euro jaso ditzake laguntza ezberdinetatik hiru urtean.

Halaber, konpromisoa hartzen du erakunde publikoetan zein pribatuetan inbertsio honetarako eskatzen edo lortzen dituen laguntza guztiak ezagutarazteko.

## 5.- JUSTIFIKAZIO-MEMORIA

## 1) Gauzatutako proiektuak edo ekintzak

--

## 2) Egoera-orri finantzario laburbildua

Zk.	Proiektua	Gastuaren kategoria	Proiektu bakoitzaren gastu-konzeptua(k)	Aurrekontua (euro) (a)	Egindako gastuak (euro) (b)	Aurrekontua – egindako gastuak (euro) (c=a-b)	Aldea %tan [d=100 x (c/a)]
			<b>GUZTIRA</b>				

(Errepikatu behar den guztietan)

Kronograma eta azken betearazpena

2023ko martxoaren 27a, astelehena

Zk.	Proiektua	Gastuaren kategoria	Proiektuaren urtea	Proiektu bakoitzaren gastu- kontzeptua(k)**	Hasiera-data (uuuu/hh)	Amaiera-data (uuuu/hh)	Egindako inbertsioaren zenbatekoa (BEZa barne) (euro)	BEZa (euro)	Egindako inbertsioaren zenbatekoa (BEZik gabe) (euro)

(Errepikatu behar den guztietan)

8) Lortutako helburuak eta azken emaitzen balorazioa, lortutako adierazleen arabera.

2023ko martxoaren 27a, astelehena

## 6.- FAKTUREN ZERRENDA

Proiektua	Gastua	Data (fakturarena)	Identifikazioa (faktura-zenbakia)	Azalpena	Jatorria (hornitzailea)	Zenbatekoa (BEZik gabe)	BEZ	Guztizko zenbatekoa	Fakturaren ordainketa-data

(Errepikatu behar den guztietan)

Bakar-bakarrik onartuko dira 500 euro edo gehiagoko fakturak (BEZik gabe), betearazpen-epearen barruan bidalitakoak, eta diruz lagundu daitezkeen proiektuen deskribapena ondo identifikatuta dutenak. Ez dira onartuko kodetutako kontzeptuak.

Ordainketak banku-bitartekoen bidez egiaztatzea baino ez da onartuko.

Justifikazioarekin batera aurkeztu behar diren agiriak

Justifikazioarekin batera, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

1. Fakturak edo merkataritzako trafiko juridikoan froga-balio bera duten dokumentuak edota administrazio-eraginkortasuna dutenak gastuen zerrenda sailkatuan erantsiz. Fakturek proiektuaren betearazpen-epearen barruko data izango dute, eta soilik onartuko dira 500 euro edo gehiagokoak badira, BEZik gabe, eta diruz lagundu daitezkeen proiektuen deskribapena ondo identifikatuta badute; ez dira kodetutako kontzeptuak onartuko. PDF bakarra erantsiko da, agindutako faktura eta ordainagiri guztiekin, justifikazioaren 13. apartatuko fakturen zerrendaren arabera.
2. Ordainketa egiaztatzen duen agiria.
3. Banku-kontuaren laburpen bat, dirulaguntzaren xedearekin lotutako oharrak jasotzen dituen.
4. Organo emaileak berrikusteko baimenik eman ez badu, onuradunak zerga-betebeharrak eta gizarte-segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiri eguneratua.
5. Inbertsioa egin dela egiaztatzen duten argazkiak edo agiriak aurkeztuko dira.
6. Publizitateari eta informazioari buruzko 23. artikulua betetzen dela egiaztatzen duen agiria, eta dagokion justifikazioa (argazkiak, audioak, eta abar).
7. Justifikazio-agiri osagarriak eskatu ahal izango dira egindako gastua justifikatzeko, bai eta estatuko edo Europako araudiaren arabera Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan eska daitezkeen beste edozein egiaztatze edo txosten ere.

Informazio gehigarria

Datu pertsonalak egiaztatzea.

Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren zortzigarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera, jakinarazten zaizu Merkataritza Zuzendaritzak, dagozkion eskumenak egikaritzuz, beharrezkoak diren egiaztapenak egingo dituela frogatu ahal izateko eskabide honetan adierazi dituzun eta administrazio publikoen eskura dauden datu pertsonalak zehatzak direla.

Justifikazioaren sinadura elektronikoa:



## XIV. ERANSKINA

Merkataritza Eragiketetan Berankortasunaren Aurkako Neurriak Ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legearen 4. artikuluan ezarritako ordainketa-epeak betetzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpenerako baldintzak, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13.3 bis artikuluan ezarritakoaren arabera:

– Eskatutako dirulaguntza 30.000 eurotik gorakoa da.

– Dirulaguntza eskatzen duen entitatea Merkataritza Eragiketetan Berankortasunaren Aurkako Neurriak Ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legearen aplikazio-eremu subjektiboan sartuta dago.

Enpresen artean edo enpresen eta Administrazioaren artean egindako merkataritza-eragiketetan kontraprestazio gisa egindako ordainketak egiten dituzten entitateak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legean xedatutakoaren arabera, bai eta kontratista nagusien eta haien hornitzaileen eta azpikontratisten artean egindakoak ere. Ez dira sartzen: a) Kontsumitzaileek esku hartzen duten merkataritza-eragiketetan egindako ordainketak; b) txeeen, ordaindukoen eta kanbio-letren arloko legeriarekin lotutako interesak eta kalteengatiko kalte-ordainen ordainketak, aseguru-entitateek egindako ordainketak barne; c) zordunaren aurka hasitako konkurtso-prozeduren mendeko zorrak, zeinak legeria berezian ezarritakoaren arabera arautuko baitira.

– Dirulaguntza eskatzen duen entitateak Kapital Sozietateen Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren 258. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen ditu, galdu-irabazien kontu laburtua aurkezteko.

Galdu-irabazien kontu laburtua formulatu ahal izango dute ondoko ondoko bi ekitalditan zehar, haietako bakoitza ixten den egunean, edo, sozietateen kasuan, eratu, eraldatu edo bat egin ondorengo lehen ekitaldi sozialean, gutxienez honako bi baldintza hauek betetzen dituzten sozietateek: a) aktiboko partiden guztizkoa 11.400.000 eurotik gorakoa ez izatea; b) urteko negozio-zifraren zenbateko garbia 22.800.000 eurotik gorakoa ez izatea; c) ekitaldian zehar enplegatutako langileen batez besteko kopurua 250etik gorakoa ez izatea. Kontabilitateko araudiaren arabera galdu-irabazien kontu laburtua aurkeztu ezin duten sozietateek legezko ordainketa-epeak betetzen dituztela egiaztatu beharko dute, Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean inskribatutako auditore batek emandako ziurtagiriaren bidez, zeinak kontuan hartuko baitu enpresa bezeroaren ordainketen benetako epea, enpresa hornitzailearen aurretiazko kobrantzarako edozein finantzaketa alde batera utzita.